



# Euskadiko landa emakumeen begirada.

MIRADA DE LAS MUJERES RURALES DE EUSKADI

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ELIKADURA, LANDA GARAPEN,  
NEKAZARITZA ETA  
ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN,  
DESARROLLO RURAL,  
AGRICULTURA Y PESCA



MENEKO

EUSKADIKO FEDERAZIOA  
FEDERACIÓN DE EUSKADI

## EUSKERAZ IRAKURRI | LEER EN ESPAÑOL

**Proiektu honek, Euskadiko landa-eremuko emakumeak ikusarazten laguntzea nahi du, landa-inguru hauek bizitzeko eta profesionalki garatzeko aukera-gune gisa aldarrikatuz.**

Este proyecto quiere colaborar en la visibilización de las mujeres rurales de Euskadi, mientras se reivindica el entorno de la CAV como espacio de oportunidad para vivir y desarrollarse profesionalmente.

# ARABA

Itxaso|Eli|Nieves|Yolanda|Idoia|Maite|Oihana



# ITXASO COMPAÑON ARRIETA

Itxaso Compañon Arrietak 40 urte ditu eta Arabako Errioxako Upategien Elkarteko (ABRA) presidentea eta Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkarteko (UAGA) kidea da. Bi kargu horiek El Mozo Wines familia-upeltegiaren kudeaketarekin eta laster errealitate izan dadin bere jakinduria eta gogo guztia jarri duen proiektu berri batekin uztartzen ditu. Gaztea den arren, Itxaso Donostian eta Bartzelonan bizi izan da, eta bertan ikasi zuen zinema eta postproduzioa. Hala ere, etorkizuneko proiektuak bere jaioterrira, Lantziegora, eraman zuen berriro, mahastizaintzan eta enologian trebatzeko eta bere bizitzaren norabidea

aldatzeko. Ez da damutzen. Ardoak saltzen dituen establezimendua eta denda baino gehiago da Koba: eremuak partekatuzko, dastaketak egiteko eta gertuko produktuak erosteko erakusleioa da. Aitonarengandik eta aitarengandik oinordetzan hartutako upeltegiaren ondoan dago kokatuta Koba, eta Itxasoren proiekturik liluragarriena da. Bere herrian lan egiteko aukera ematen dio, gaur egun inolaz ere aldatuko ez lukeen landa-ingurunean.

“Landa-ingurunekeo bizimodua ordainezina da”

Itxaso Compañonek egunez egun bere Koba proiektua normaltasunez garatzen ari dela ikusteaz gozaten du. Bere familiak sufritzen du, baina bera obraren aurrerapen bakoitzaren pozten da. Argazkiak ateratzen ditu, arkitektoarekin hitz egiten du, lanak nola doazen galdetzen du, eta harro sentitzen da leku egokian ari delako. Esanenezake Itxaso Lantziegon bizi eta lan egiteaz harro dagoen landa-eremuko emakumea dela, 700 biztanle baino gehiago dituen udalerrri honetan bere bizitza pribatua eta lan-bizitza ezartzea erabaki duena. Zalantzarik gabe merezi izan duela irmoki baieztatu du, Itxasok bere bizitza aldatu zuen upeltegi eta ardoagatik. Hala ere, ez da nahikoa izan. Lehendabizi, El Mozo Wines enpresaren agintea hartu zuen, ustiategi ekologiko bihurtu eta botilatzeoko makina batean inbertitu zuen. Era horretan, 40.000 botilako ekoizpen txikia lortu zuen, % 80 kanpora esportatuz. Zuzeneko salmenta sustatzean, upeltegia bisitatzekeo eta dastatzekeo egiteko beharra sortu zen, baina lekua ez zen egokia. Hortaz, Itxasok familia-upeltegiaren ondoan dagoen koba txiki bat prestatzeko aukera ikusi zuen. Horrela sortu zen Koba, Wine Bar-a duen eta Lantziegoko eta inguruko herrietako upategi guztietako ardoak eta kalitate handiko olioak saltzea eta olioak erakusteko eta saltzeko erabilera anitzeko lekua, enoturismoaren bultzada eta inguruan halako establezimendurik ez dagoela aprobetxatuz.

Izan ere, Itxasoren ikuspegia are zabalagoa da. Proiektua oraindik amaitu gabe egon arren, Koba Lantziegoko bizilagunek alokatu ahal izango duten gunea izango da, eskualdeko pertsonen artean ardoaren kulturari landa-izaera emanez, eta, era horretan, hirigune txikienetako premia-zerbitzuak haztatuz.

ABRAko presidentek ez dio ekintzailtzari zailtasunik ikusten, guztiz kontrakoa. Ideia jasagarria bada, gogoia soberan badago, eta komunitate-harremanak sortzeko prest bagaude, bide luzea dugu

eginda. Berak argi ikusi zuen Ostegun Ekintzaileak izeneko ikastaroan parte hartu ostean. Ikastaro horretan, beste ekintzaile batzuen berri izateko eta, azkenik, bere lan-etorkizuna erabakitzekeo aukera izan zuen.

Koba proiektua finantzatzeko aholkularitza eta LEADER laguntza izapidetu duen arren, bereziki turismoaren arloan dauden laguntzei buruzko informazio orokorra falta dela onartzen du. Dena dela, Itxaso ilusioz beteriko prozesu batean dago murgilduta, Koba laster sendotuko den esperoan. Belaunaldien arteko ordezkapenak ez du kezkatzen, ezta seme-alabek proiektua jarraiaraziko duten ere. Garrantzitsuena bera buru den bitartean grinatsuki bizitzea da.

Koba ardoaren eta egunerokoaren topagunea izango da Lantziegon; bisitariak eta turistek Arabako Errioxako lurraldeko produkturik onenak ezagutzeko lekua izango da, eta Itxasok ardo on batekin topa egingo du atek irekitzen dituen.

# ELI GORROTXATEGI ORIA



Elisabeth Gorrotxategik eta bere bikotekideak, Joxe Mari Jauregik, Beasainen zuten egoitza utzi, eta Ilarduia, Asparrenera, joan ziren ardi-ustiategi bat aurrera ateratzeko La Lezen, Joxe Mariren aitona-amonon baserrian, eta ahuntz-eta ardi-landetxe txiki batekin aurrera ateratzea lortu zuten lehenik, eta, ondoren, Idiazabal jatorri-deiturako eta Artzai zigeluko gazta egin zuten. Gazta mota ezberdinak egiterakoan erakutsitako arretari eta ardurari esker, bi aldiz izan dira txapeldun Ordiziako gazta lehiaketan, Euskadiko ospetsuenetakoan, alegia. Gaur egun, 450 ardi dituen ustiategi familiar bat da proiektua, eta bi semeen laguntza du.

## Ilusioz beteriko familia proiektua

Beasaingo bizitzaren erosotasuna ez zen nahikoa izan Eli Gorrotxategirentzat; senarrak landa-eremuan bizitzeko zuen bokazioari jarraiki, Asparrenako Ilarduia kontzeju ederrera joan zen familiarekin batera, lehen sektorearekin lotutako proiektu berri bati ekiteko. Hasieran, ahuntzak eta ardiak baino ez zituzten erosi La Lezen, senarraren aitona-amonon baserrian. Izen horren esanahia, leize-zuloa, artzaintzari oso lotuta zegoen. Hala ere, Joxe Mariren aitona-amonon hurrengo belaunaldiak ez zuen familiaren tradizioa jarraitu, eta bikoteak hutsetik ekin behar izan zion landa-proiektu honi. Lehenik eta behin, 1992an, Goierriko udalerría eta familiaren baserria uztartu zituzten, artaldearen ardura hartuz, esnea jertziz eta salduz, baina etekina ez zen espero zena, eta Elik gaztagintzaren aldeko apustua egitea erabaki zuen. Senar-emazteek bi seme zituzten, Arkaitz eta Gaizka, eta, haiek haurrak zirela, familia Ilarduia joan zen behin betiko, 2002an, ohiko lanak atzean utzi eta etorkizuneko familia-proiektua izango zenari bidea irekita. Hastapenak ez ziren errazak izan, baina Eli, gazta egiteko ikastaro bat egiteaz gain, lagun artzain handiz inguratu zen, eta haiek bidea irekitzen lagundu zioten, betiere, besteen merkatua errespetatuz, eta inguruko artzainek bereak saltzen ez zituzten lekuetan gaztak eskaintzen hasi zen. Gainera, Artzai Gazta elkarte bezalako erakundeen laguntza tekniko eta tramitazio burokratikoan laguntza izan zuen.

Pixkanaka, eta errespetuz eta apaltasunez, Eli bere bidea taxutzen joan zen, jezteko gela bat eskuratzearekin batera ustiapena zabalduz, nabea handituz eta gaztak ontzeko bere kamera propioa instalatuz, produktua salmenta zuzenaren bidez ezagutzera emateko.

Denborak aurrera egin ahala, familiaren negozioa egonkortzen joan zen, eta gaur egun La Lezek Asparrenko landa-udalerrian bazkatzen

diren 450 ardi latxa mutur-gorri ditu. Esne bikaina ematen dute, eta, horri esker, kalitate zigeluko gaztak egiten dituzte, estatu mailan erreferenteak direnak. Eli Gorrotxategiren ustez, jatorrizko izendapenak Idiazabal identitatea bermatzen du, eta egiten duzuna ziurtatzeko modu bat da. La Lezek ekoizten duen gazta-aukera zabalari ematen dion arretaren aintzatespena da. Izan ere, Eli zein Joxe Mari hasieratik proiektu honetan erdi bana aritu badira ere, Eli arduratzen da gazta egin eta, ondoren, saltzeaz. Joxe Mari gehiago arduratzen da artaldeaz, ardien maneiaz eta jezteaz. Azpimarratzekoa da, halaber, duela 16 urte bien semeetako batek ilusio horrekin jarraitzea erabaki zuela, eta, une honetan, La Leze gurasoen eta semeen arteko proiektu bateratua dela esan daiteke.

Eliren gaztak ez ditugu saltoki handietan aurkituko, baina Estatuko lurralde gehienetan erosi ditzakegu, denda espezializatuetan.

Eskakizun administratiboengatik eta lana egiteko denbora faltagatik landa-eremuan ekitea gero eta zailagoa dela uste duen arren, aitortu du berari bere lana gustatzen zaiola eta ez duela inoiz harekiko ilusioa galtzen. Lan egiteak beldurrik ematen ez dion belaunaldi batetik datorrela dio, bere ametsa egia bihurtzeko dena alde batera uzteak zer sakrifizio dakarren jakinda ere. Bere egunerokotasuna nahiko gogorra da, eta lanbide honi eskaintzen dion dedikazioa etengabea da, beti dauka zer egina asteburuak eta jaiegunak bereizi gabe. Hala ere, Araban bizi den gaztagile eta artzain honek gogoz eta kemenez ekiten dio bere lanari; izan ere, Eliren ustez, norberak ez badu sinesten bera den horretan, kanpoko inork ez du baloratuko. Bere kasuan, gogotsu egindako gazten arrakastak benetan islatzen du Elik landa-eremuko emakume ekintzaile gisa duen balioa.



# NIEVES QUINTANA PÉREZ

Nieves Quintana Pérez nekazarien eta abeltzainen alaba eta biloba da. 59 urte ditu, eta bizitza erdia baino gehiago darama emakumeek landa-ingurunean egiten duten lana agerian jartzen ahalegintzen. Duela 32 urte nekazaritza-ustiategi baten titular izatea lortu zuen, gizarteak, oro har, baserrian emakumeek itzalean egindako lana aitoren zezan etengabe borrokatu ondoren. Bere lan-ibilbidean zehar, lehen pertsona jokabide matxistak, iruzkin iraingarriak eta

ezin konta ahala oztupo jasan ditu landa-ingurunean emakumeak protagonismoa irabaz dezan. Hala ere, Nieves pertsona konprometitua da eta printzipioak ditu, eta ez du inoiz atzerapausorik eman, eta, hala eta guztiz ere, benetan nahi izan duena egitea lortu du, bere aldarrikapen nagusia ahaztu gabe. UAGA Arabako Nekazarien Elkarteko zuzendaritzako kide izan ziren lehenengo hiru emakumeetako bat izatea lortu zuen. Gure Soroa, Arabako emakume nekazari eta abeltzainen elkarteko bazkide eta zuzendaritza-batzordeko kide ere izan da. Halaber, Otazu kontzejuko eta GKEko (Gasteizko Kontzeju Elkarte) presidentea eta Euskadiko Nekazaritzako Elikagaien Kooperatiben Federazioko kidea izan da, besteak beste. Kargu horiek guztiak nekazaritzaren sektorean berdintasun eraginkorra aldarrikatzeko balio izan diote.

“Gure amak benetako borrokalariak izan dira landa-ingurunean”

Done Bikendi Haranan jaioa, Otazura eraman zuen maitasunak Nieves, Gasteizko udalerriko kontzeju batera. Bertan ezarri zuen duela 32 urte bere lan-proiektua, garia, garagarra, oloa, babak eta 2020 arte patatak landatzeko. Senarrak zereal uzta biltzeko makina bat eskuratu zuen, eta harekin egiten du lan gaur egun. Soroko lanak egiteaz gain, gero eta zailagoak diren administrazio-izapideez eta gai burokratikoek arduratzen da Nieves, eta argi eta garbi aitortzen du laborantzarik gorrotagarriena paperak direla.

Hala eta guztiz ere, Arabako mendialdeko emakume ahaldundu honek beti izan du argi borrokatu behar zuela bere baserrian hamarkada askotan bizi izan duen lan nekeza agerian jartzeko. Odolean darama soroaren ardura, eta bere ama izan da beti itzalean lan egin duen erreferentziako pertsona. Horregatik guztiatik, bere amarengatik, Nievesek bide luzea egin du emakumeak landa-ingurunean pairatu zuen bidegabekeriaren aurka borrokatzeko.

Non dago etxeko gizona? Edo, zure senarrak utzi dizu etortzen? Nekazari eta abeltzainekin egiten zituen lehen bileretan entzuten zituen lehen hitzak ziren, non berak bere ustiategiaren titular izatea eta nekazaritzako gizarte-segurantzaren kotizatu ahal izatea besterik ez zuen aldarrikatzen. 3 urte behar izan zituen hori lortzeko, bere irmotasunari esker eta konpromisotik bakarrik emakumeak nekazaritzaren sektorean merezi duen ikusgarritasuna emateko lan egin daitekeela sinetsita.

Ez da erraza estereotipoak haustea, ezta emakume bakarra izateagatik zure burua kikilduta ikusten duzun jardunaldietan parte hartzea ere. Nerbioak eta eztarriko korapiloa bere interesak defendatu behar zituen bakoitzean agertzen ziren, baina gizonek ikusten ez zuten sentsibilitate bereziarekin, ustiategiaren titulartasuna lortu zuen, eta 2007. eta 2011. urteen artean

nekazaritza-elkarteko zuzendaritzako kide izan ziren lehen hiru emakumeetako bat izan zen. “Zure senarrak irabazten duen diruarekin nahikoa da familia-unitatea mantentzeko” eta halako adierazpenei aurre egin zien Nievesek, eguneroko lan sindikalarekin, berak aldatu behar zuen mundu tradizional eta matxista bati aurre eginez.

Urte hauetan guztietan Nieves ezin izan da geldirik egon. Inork ez du lortu hari hegoak moztea, eta borrokan jarraitu du emakumeak are gehiago ikusarazteko oraindik ere emakume izateagatik desberdintasunak dauden ingurune horretan. Gizarteak aldatu egin da, baina nekazaritzaren sektorean poliki-poliki aldatu da. Erakundeek laguntzak edo emakume nekazariaren estatutua arnasbidea izan dira emakumeak landa-eremuan duen zereginarentzat. Hala ere, ia ez dago belaunaldien arteko erreleborik, eta laboreei buruzko Europako araudiek zaildu egiten dute ustiategien jarraipena.

Hori ere ez da oztupo izan Nievesentzat. Bere dinamismo eta energiari esker, laboreetan, fitosanitarioetan edo nekazaritzarekin lotutako ikerketetan trebatzen jarraitu du. Gure Soroaren barruan, eta elkartearen ia jende berririk ez badago ere, autoestimarekin lotutako gaiak ere lantzen dira, eta hori ezinbestekoa da emakumeak sektore maskulinizatu batean aurrera egiteko borrokan jarraitzen duen mundu honetan.

Hala ere, Nievesentzat duela 30 urteko eskakizunak eta beharrak ez dira oraindik bezalakoak. 60 urterekin, beharrezkotzat jotzen du landa-mundua aldatzen jarraitzeko kezka duen emakume gazteak egotea, emakumeak lekua emanez eta Nieves Quintana bezalako pertsona nekazari orain arte egin duten borroka babestuko duten erabaki-organoetan parte hartuz.



# YOLANDA FERNÁNDEZ DE LANDA EGILUZ

Yolanda Fernández de Landa Egiluz 59 urteko emakume abeltzaina da, bizitzak gogor kolpatu zuena, 2022an bikotekidea hil zitzaionean, Arabako Harana bailarako Uribarri kontzejuan, ehun terreña behi inguru eta beste abere batzuk zituen abeltzaintza-ustiategia utzita. Zalantzako unerik gabe, negozioaren lekukoa hartu zuen, prestakuntzarik eta ezagutzarik ez bazekuan ere; urte gogor bezain korapilatsuaren ostean, aurrera ateratzea lortu zuen. Tinko jarraitzeari esker, Yolanda emakume ekintzailearen eredu da gaur egun, oraindik maskulinizatutako landa-inguruan, baikor eta ausart ekinda.

## Nahia eta ahala bat direnean

Gasteizen kartoia birziklitzeko lantegi batean 23 urte baino gehiagoz lan egin ondoren, familia osoa, bi alabak barne, Ali kontzejuan utzita, mendira abiatu zen Yolanda duela hiru urte baino gehiago, hiritik landa eremura aldatuta, bizimodu gogorra bezain suspergarriari ekiteko.

Uribarri Haranan finkatu eta urtebetera, 2022an, Yolandaren bizitza eten egin zen, hilabete berean galdu baitzituen aita eta Mitxel bikotekidea, lana, lurra eta bizi-kalitatea bihotzez maite zituen abeltzaina; 40 biztanle pasatxoko Harana kontzeju txikian bizi zen Yolandarekin. 57 urterekin, maiteari terreña behien ustiategiarekin jarraituko zuela agindu ostean, agindutakoa betetzen tematu zen Yoli, bikotekideak utzi ez zion ondare bakarraz konturatu gabe, bakardadeaz, alegia. Dolua mehatxuka zuela eta bere mundua iraulita, hutsetik hasi zen, abeltzain adiskide batzuen eta ezagun gazte baten laguntzarekin, aholkuak eman zizkiona, eta oraindik laguntza itzela ematen diona. Eskutitzak iristen ziren eta ez zekien zer esan nahi zuten, negozioarekin lotutako hainbat erakunderen gutunak eta ehun terreña behi, pottoka eta azpigorri ahuntz inguruko ustiategi bati nola aurre egin ez jakiteak behin baino gehiagotan amore ematea pentsarazi zioten. Alabaina, iragarpen guztien aurka, eta zorigaitzoko 2022ko lehorteari aurre eginez, bolia eta libreta eskuetan hartuta, zeukan aziendari buruzko informazio guztia idazten hasi zen, harik eta bere behiak ezagutzen ikasi zuen arte, eman zuen hitza gogoan zuela beti, inolaz ere hautsiko ez zuena.

Yolik sekula ez zuen pentsatu abeltzain izango zenik. Gurasoak esnekiak, zerealak edo patata saltzen aritu ziren, lurra landuta eta esnetarako behiak zainduta, baina bera ez zen inoiz nekazal munduari lotua egon, non orain zorionsu eta lasai sentitzen den. Une gordin-gordinak bizi izan dituela aitortzen duen arren, orobat dio

bizikiak estutzen gaituen arte ez dugula inoiz gure indarra ezagutuko. Landa-ingurunean norbere mugak gainditzearen adibide den emakume honen iritziz, egun bakoitzean ikasten da zerbait. Hark du ardura pabilioian, herriko larreetan eta Iturrietako mendilerroan banatuta duen ganadua kontrolatzeko, Argi txakur eme gaztea kide duela; abeltzain batek oparitu zion euskal artzain-txakurrak bakardadeari aurre egiten laguntzen dio. Halako batean bikotekideak Uribarrin hasi zuen proiektua sendotzeko laguntza aurkitu duen arren, abeltzain batzuek oztopoak jarri dizkiote emakume izate hutsagatik; Yoliren iritziz, sektore hori oso maskulinizatua dago oraindik ere.

Ez zuten jakin, ordea, zeinen ausarta den Yoli, "nahia eta ahala bat" goiburu hartuta, bilduko zuela nahikoa indar jadanik Uribarriko etxean soilik daukan bizi-kalitatearen alde pixkanaka-pixkanaka gainditu beharreko oztopo horiei guztiei aurre egiteko. Orain, ama, ahizpa eta bi alabak sarri joaten zaizkio bisitan, eta, behar duenean, hirira itzultzen da, landa-ingurunean ekintzaile izateko arriskatu baino lehen, atzean utzitako bizitza erosoan izan zuen lekura. Eta pozarren dago. Ez da lehen bezain histeriko sentitzen, zalapartarik gabe, inposiziorik gabe, egunean zehar bere buruari ezartzen dizkion betebeharrekin, kalitatezko bizitzaz gozatuz. Gainera, ez du hain goiz erretiroa hartzeko asmorik, agian, bultzatu egiten dutelako bai abeltzain izaera berriak, bai eta bikotekidearen proiektua aurrera eramateak, nahiz eta lan ugari dakarren. Izan ere, gogoaz, beti irabazten goaz.



# IDOIA ZABALETA MORAN

Idoia Zabaleta Morán, 54 urtekoa, gasteiztarra da, eta duela hiru hamarkadatik bizi da Erriberagoitiko oso biztanle gutxiko Lasierra kontzeju txikian. Bertan, sorkuntza artistikorako gune bat eraiki zuen 2008an, Juan González bikotekidearekin batera. Biologia ikasi zuen, ekosistemetan eta populazioen dinamikan espezializatuta, baina dantzak "bere karrerak ematen ez zion zerbait" eskaintzen zion, eta dantza berria eta inprobisazioan trebatzea erabaki zuen,artzelona, Amsterdam edo/eta New York bezalako lekuetara joanez. 25 urte besterik ez zituela, artista katalanekin lan egin zuen "Mal pelo" konpainian, nazioarteko jaialdi eta topaketetan parte hartuz. Moaré Danza Dantza eta Gorputz Lengoaiei Elkartearen sortzailea da. Elkarte horrek Gasteizen du egoitza, eta dantza dibulgatzen eta ira-

kasten du. Bere proiektuak, "Azala" izenekoak, arte eszenikoekiko grina eta bizi den landa-ingurunean ostatu hartzea uztartzen ditu. Proiektu horrek Eusko Jaurlaritzaren "Gure Arte" saria jaso zuen 2017an.

## Artearen eta turismoaren uztarketa landa-ingurunean

"Azala"-k herriaren eta kulturaren arteko harreman komunitario bat proiektatzen du, lasaitasuna nagusi den leku batean. Idoia Zabaletak eta Juan Gonzálezek, Lasierran jada finkatua dagoen proiektu honen bazkide kapitalistek, argi dute ez dela idealismo kontu bat, baizik eta espazio konbinatuen arteko lotura bat, bi errealitateei etekina ateratzeko; kulturari eta landa-eremuari. Ildo horretan, Idoiak aitortu du hiria oso gustuko duela, eta Lasierra bere oinarritzko kanpamentua dela, bertatik sorkuntza artistikoak proiektatzen baitituzte eta beren ibilaldi eta bidaiak antolatzen.

2008ko krisialdi betean, Biologian eta Dantzan trebatu, eta zientziak betetzen ez zuen espazioa bete ondoren, Idoia Zabaletak buru biko proiektu bati ekitea erabaki zuen, hainbat diziplina artistiko sortu ahal izateko ostatu bat egokituz. Gaur egun, gune hori, alde batetik, turismora bideratuta dago, ingurune naturalaz gozatzeko zurezko bost txabola eskainiz, eta, bestetik, diziplina guztietako artistek parte hartzen duten sormen-lerroa eskaintzen du, non zuzeneko antzerkia, dantza komunitarioa edo/eta artearen arloko espezialistek zuzendutako topaketak eta tailerrak nabarmendu ditzakegun. Esan behar da ostatuak berak espazioa taldean alokatzeko aukera ematen diela ostatatuei, baita osasun turismoa egiteko aukera ere, yoga klaseak, terapiak edo norbere burua zaintzeko tresnak barne. Alderdi hori ezinbestekoa da autofinantzaketarako, nahiz eta Idoiak, batez ere, proiektu horren ildo artistikoa azpimarratzen duen. Proiektu horretarako, hainbat erakunderen kultura-laguntzak izan zituzten, landa-garapeneko elkartearen beraren Leader edo Erein programetako gain, eta laguntza eta aholkularitza ere aurkitu zuten 2012an egonkortu ondoren.

Duela hamabost urte baino gehiago sortu zenetik, "Azala" sorkuntzarako espazio gisa aintzatetsi da, eta oso lan garrantzitsua egin du Euskadi osoko arte eszenikoen testuinguruan.

Horren erakusgarri da Eusko Jaurlaritzak 2017an eman zion saria. Sari horrekin, ikusgaitasun handiagoa eman diote une honetan, Idoia Zabaletaren hitzetan, "olatuaren gailurrean" dagoen lan sendoari. Izan ere, pandemiak inflexio-puntu bat markatu zuen, eta, horren ondorioz, gaur egun, landatartasuna modan dago. Hori dela eta, eta aldeko irizpide horiekin, Idoia Zabaletak aukeratzat jotzen du bokazio publiko kulturala duen kudeaketa pribatuko proiektu hau, non koreografoak ametsak sortzen dituen, betetzen doazen heinean.

Aitortu behar da "Azala"-ren jarduna etengabea dela Idoiak dantza munduan duen esperientzia eta ibilbideari esker. "Eskutik Hitz" laborategi zikloa antolatzen du, idazketa koreografia gisa arakatzeko, "Martxaundi" ibilaldiak, pentsamendu praktika gisa ibiltzearen diziplina bultzatuz, artista gazteen prozesuak laguntzen ditu, eta "Proklama" programaren buru da Ixiar Rozasen eskutik. Horretaz guztiaz gain, "Azala" leku aproposa da hainbat gorputz-praktikaren ikastaro trinkoetarako, enpresa-bileretarako eta lan-prestakuntzako ikastaroetarako, ingurumen- edo bizikidetzaz- hezkuntzako eskola-programetarako eta familien eta lagun-taldeen bileretarako. Bere programazioa, begiratzen zaion ikuspegitik begiratzen zaiola, erreferente kulturala da Euskal Herri mailan, eta, zalantzarik gabe, bere ingurua oso aproposa da beste esparru batzuetan aurkitzen zaila den lasaitasun eta sosegu hori estimatzeko.

Konbinazio arrakastatsu horrekin eta proiektu honi ekin ondoren, Idoiak baikortasunez egiten dio aurre etorkizunari, "pentsamenduen eszeptikoa" dela kontuan hartuta, baina etorkizun alaia aurreikusten du, non artea sortzen jarraitzeko baldintza berdinak ematen jarraituko diren natura eta kultura bat egingo dituen landa-eremu batean.





# MAITE GARCÍA DE CORTAZAR JONAS

Maite García de Cortazar Jonásek oso bitzta trinkoa izan zuen, Arabako Zigoitia herriko Murga kontzejuan finkatu zen arte. Mexikon jaio zen, eta ama alemaniarra zuen. Gopegin hazi zen, eta denbora asko eman zuen kanpoan bere prestakuntza akademikoagatik. Alemanezko eta arabierazko itzulpengintza eta interpretazioa ikasi zituen, baina beti izan zuen kosmetikari buruzko eta bere marka propioa sortzeko interesa. Zenbait ikastarotan parte hartzen hasi zen, informazioa jasotzeko, eta kosmetika ekologiko ziurtatuan trebatu zen. Duela hamar urtetik proiektu honekin amets egiten bazuen ere, duela zazpi urte bere marka merkaturatzea lortu zuen, bere ametsa beteta: bere

denda eta laborategi propioa izatea landa-ingurune batean. Ahalegin eta pertseberantzia handiz egia bihurtutako ametsa. Kosmetika naturaleko proiektuaren ondorioz, "Arabako Aukeren Lurraldea " ekintzailatza saria eman zioten Maiteri 2024an.

## "Landa-ingurunean bitzta izateko negozioak egon behar dira"

Maite García de Cortazarrek argi zuen bere bizi-proiektua landa-ingurune batean kokatuta egongo zela, eta bera ere bizi zitekeen ingurune batean. Hala, espazio dinamikoak sortzen lagunduko zuen, Murga bizitzeko leku hobea izan zedin. "Landa-eremua bitzta egiteko leku bihurtzea, aukera mugagabeak aprobetxatuz". Premisa horrekin, ez zuen onartzen bere proiektua hirian gauzatzea, pertsonetik harreman zuzena eta landa-bizitzak oparitzen digun lasaitasuna galduz. Horregatik, emakume ekintzaile, baikor eta bere lanaren maitale honek bere etxe ondoan laborategi-denda bat errealitate bihurtzeko borrokatzea erabaki zuen, horrela kosmetika ekologiko ziurtatuko bere lerro propioa sortuz.

Proiektuari duela hamar urte ekin bazion ere, duela zazpi urte lortu zuen kosmetika ekologiko ziurtatuaren bere lerroa proiektatzea, batez ere azal sentikorretarako. "Lamia Cosmética" alokatutako instalazio batzuetan hasi zen, denda-laborategi bat jartzeko aukera sortu zen arte, eta horrela bete zen Maiteren nahia. Aukera horri esker, askatasun handiagoa zuen bere produktuak fabrikatzeko eta beste marka batzuentzat ere lan egin ahal izateko; beraz, ez zuen bitan pentsatu, eta laguntza posibleei buruzko informazioa bilatu zuen. Bere LGEak garapen plana aurrera eramateko eskaintako aholkularitzari eta Mendineteko LEADER laguntzari esker, bere hasierako ideia aurrera eraman ahal izan zuen, "Lamia Cosmética" etorkizuneko negozio bihurtuz Murga bezalako landa-eremu batean.

Gaur egun, Maite García de Cortazarrek denda eta laborategia uztartzen ditu, eta bere markako zazpi produktu jartzen ditu salgai, besteak beste, gorputz-olioa, begi-ingururakoa eta ezpainetako baltsamoak. Bi tamaina ezberdin merkaturatzen ditu, bata publikoari saltzeko eta bestea, handiagoa, estetika-zentroetarako, ahaztu gabe bere laborategia izateak beste marka batzuetarako formulatzeko aukera ematen diola. Dibertsifikazioaren bila, Maite García de

Cortazarrek osagarrien salmenta txertatu du bere saltoki fisikoan, Arabako hainbat artisaren produktuak erakusteko eta saltzeko aukera emanez. Katiluak, nezeserrak edo masaje-tresnak "Lamia Cosmética"-ren parte diren artikuluen osagarri dira, eta hurbileko hornitzaileen bidez artisautza, ingurunearen zainntza eta ingurumena sustatzen dira horrela. Horrez gain, beste finantzaketa-iturri batzuk bilatuz, eskualdean biokosmetikari buruzko tailerrak eskaintzeko aukera aztertzen ari da García de Cortazar. Ekimen hori berria da Zigoitian eta inguruetan.

Produktu naturalen zale amorratua da, eta horiek negozioa instalatu duen landa-eremuarekin sinkronizatzea maite du. Web posizionamenduak eta online dendak bere artikuluen salmentaren %50 osatzen dutela onartzen du, baina uste du herrietan bitzta egon dadin beharrezkoa dela tokiari dinamismoa emango dioten negozioak egotea. Adibidez, ekoizpen-instalazioa eta saltokia egiteko lanak hastea zaila izan zen, proiektuak lekuaren estetika mantendu eta bioeraikuntzako materialak erabili nahi baitzuten. Hala ere, pixkanaka ikasi zuen ekintzailatza desafio zaila dela, baina,aldi berean, erakargarria. Uste du amets bat eta proiektu bat baldin badituzu, porrotaren beldurretik ihesi aurrera ateratzen saiatu behar duzula: "Porrot eginez gero, beti eramango duzu ikasitakoa".

Zalantzarik gabe, Maite García de Cortazarren proiektuaren izaera berritzaileak eta metodoaren berritasunak, bere eskualde osoan bakarra, eta erronka honi aurre egiteko duen positibotasunak, landa-eremuetako proiektu ekintzaileetan fedea mantentzera bultzatzen dute. Are gehiago, natura, planetaren osasuna eta osagaien garbitasuna hainbeste errespetatzen direnean, gure landa-ingurunearekin hain bat datozen elementuak sortzen dituztelako.

# OIHANA GOIKOETXEA CAMPO



Oihana Goikoetxea Campo Laudioko neska gazte bat da, landa-ingurunearen bizi-kalitateari lehentasuna emanez ingurune osasungarri batean ekintzaile izatea bilatzen duena. 2017an fisioterapia-klinika bat irekita bere negozioa Luiaondon instalatzea erabaki zuen. Klinikari, tratu zuzena eta pertsonala ditu lehentasun, ingurune hiritarragoan negozio batek ekar ditzakeen aukera ekonomikoen gaitetik. Oihanaren ibilbide profesionalaren emaitza izan da Zurekin Fisioterapia Zentroa. 2009an ospitale publikoetan hasi zen lanean, 2016an etxetik etxeko zerbitzu batekin jarraitu zuen Amurrión eta Laudion, eta, azkenean, Aiara bailarako kontzeju honetan kokatutako proiektuak dakarren lasaitasunaz maiteminduta zen.

## Landa-ingurune bizi-kalitatea

Oihanak bere lanbidea maite badu ere, are gehiago maite du landa-ingurunean egunero lan egiteak dakarkion lasaitasuna, non herritarrek elkar ezagutzen duten, klinikara joateko bezeroek aparkalekua aurkitzeko presarik ez duten, eta komunikatzeko biderik eraginkorrena ahoz ahokoa den. Jatorriz Laudiokoa den 36 urteko gaztea Luiaondon bizi da, 1.200 biztanle pasatxoko kontzejuan; argi zekien herri txiki bat aukeratuko zuela, bertan bizitzeko eta lan-proiektua sendotzeko. Ospitaleetan egindako lan-ibilbidea utzi zuen, adinekoentzako etxetik etxeko zerbitzua eskaintzen hasteko. Alabaina, egonezinak eta, hiriko zalapartatik urrun, bizimodu lasaia bilatzeko nahiak bultzatuta, gaur egun errealitate den proiektu berriari murgildu zen Oihana. Zurekin Fisioterapia Zentroa emakumeen presentzia nabariko ingurunean sortu zen, herriko farmazia edo Zentrotik hurbileneko taberna emakumeek kudeatzen baitituzte. Landa-ingurunean gero eta emakume ekintzaile langile gehiago daudela erakusten du horrek. Izan ere, ondoan doazkizun bizilagunak agurtuz lantokira pasieran joatea, aire garbia arnastea edo bidean topo egin duzunarekin hitz egitea faktore erabakigarriak izan ziren Oihanak bizibidea Luiaondon kokatzea erabaki zuenean. Hasiera neketsu samarra izan zen, kosta egin baitzitzaion Barrena kalean eskaintzen zuen zerbitzua ezagutaraztea. Hala ere, etxetik etxe lan egin izanak eta kontzejuan ahoz ahokoa baliatzeak jende asko bideratu zuen lokala ezagutzera. Bertan, fisioterapia-zerbitzuak eskaintzeaz gain, jende gehiago bizi den lekuetan aurkitzen ez den tratu pertsonalizatua eskaintzen dute. Egia da diru-sarrerak eta lan-bolumena ez direla hiriguneetan kokatutako ezaugarri bereko enpresek lortzen dituztenen parekoak, bezeroen kopurua lehenesten ez denean, adorea eskaintzen du bizi-kalitatea irabazi izanak.

Nolanahi, ekintzaile guztiek bezalaxe, Zurekin Fisioterapiak ere izan ditu bere argi-itzalak, Oihanak hasieratik jaso duen erakunde

babes handiarekin konpondu direnak, halakoa izan baita bai Udalaren aldetik, bai LGEaren aldetik, LEADER laguntza-programaren bidez jasotakoa.

Horrenbestez, Luiaondoko zerbitzu-proiektu hau egoki joan dela esango genuke, nahiz eta zailena lokala ezagutaraztea izan den, hain ingurune landakoan kokatuta. Ez da samurra izan, biztanle gutxi leku bada ere, baina pixkana-pixkanaka hitzorduak ugaritzen joan dira Zurekin-en, eta Oihanaren egutegia bezeroz betetzen joan da, kontzejukoak ez ezik, hain hurbil ez dauden beste udalerri batzuetakoak ere.

Emakumea izatea ez da eragozpena izan. Gertaera bitxiren bat edo beste soilik, klinikari minen bat tratatzeko garaian, adinekoren batek haren gaitasun fisikoa zalantzan jarrita, terapeutak duen adinagatik eta gorpuzkeragatik. Oihanak konpondu ezineko ezer ez, izaera irribarretsuaren atzean profesional aparta baitago, lana landa-ingurunean bizitzeko patxadarekin uztartzeko gai dena.

# BIZKAIA

Sheila|Charo|Irene|Karmele|Leticia|Bidane|Lorea

# SHEILA RASINES HELGUERA



Sheila Rasinesek 35 urte ditu eta Turtziozen jaioa da. Duela 5 urte aitaren pausoak jarraitzea erabaki zuen, eta Rasines Ganadutegiaren erreleboa hartzea, duela hilabete batzuk aitak erretiroa hartu eta gero. Gaur egun, piriniotar arrazako 50 abelburu eta limusin arrazako 20 dituen okelatarako behi-ustiategi baten buru da, eta Turtziozko abeltzainen Artaio elkarteke presidenteordea ere bada. Emakume gazteena da Enkarterriko herri horretako nekazaritza-ustiategi baten buru direnen artean. Sheilak onartu du emakumeen presentziak handiagoa izan behar duela lehen sektorean, oso emakume abeltzain gutxi baitaude lanean. Euskadi osoan zabaldutako arazoa den arren, baikorra da, eta uste du arrakastaren gakoa proiektuak emakume bakoitzari egokituz ekitea dela.

“Arrakastaren gakoa zure negozioa zeure buruari egokitzea da”

Turtziozko Pandillo ganadutegian okelarako abeltzaintza garatu eta sustatzeko asmoz, Sheila Rasinesek duela 5 urte erabaki zuen bere aita Peperi erreleboa hartzea, eta, hura erretiratu ondoren, bide berri bati ekin dio. Elkarlaneko bosturteko honetan, Sheilak proiektua egokitzea lortu du, limusin arraza bere ustiategian sartuz, errentagarriagoa delako eta abereak maneiatzeko erraztasun gehiago eskaintzen dizkiolako. Bere etorkizuneko proiektua berritzailea da, epe laburrean txahalak saltzeko gizendegi bat sortzeko asmoa baitu, eta Armañon parke naturalaren ondoko lursail batean landa-aterpetxe bat instalatzeko, ustiategiaren efizientzia indartzeko.

Zurrumbilo horretan, garraioari eta elikagai-ongizateari edo lurraren emankortasunari buruzko ikastaroen bidez trebatu da, eta Enkarterrialderen, Lorraren eta Hazi Fundazioaren aholkularitza eta laguntza jaso du, erakunde oso beharrezkoak proiektua finkatzeko, Sheilaren ustez, eta Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundiaren dirulaguntza ere jaso du. Enpresaritza ikasketak eta lan administrazioarako eta aholkularitzarako dedikazioa bigarren mailan geratu dira, eta gaur egun abeltzaintza du ogibide nagusi.

Hori dela eta, eta aitaren bideari jarraituz, Pepe duela 40 urte sortu zenetik kide izan den Artaio abeltzainen elkarteke kide izatea erabaki zuen. Une honetan, presidenteorde postuan dago, eta zuzendaritza batzordean dagoen emakume bakarra da, udalerriko beste emakume gazte batekin batera. Elkartearen belaunaldi aldaketa behar zen, eta Sheilak ez zuen bitan pentsatu. Izan ere, haren ustez, oso garrantzitsua da gazteek abeltzaintzaren alde egitea eta gure gurasoek eta aitona-amonek sektorea mantentzeko eta egonkortzeko egin duten lan izugarriari jarraipena ematea. Horregatik, funtsezkoa da era horretako elkarteek egiten duten lana. Larreak mantentzea, udal lurra in situ ikuskatzea, ganadua udalerrikoa dela egiaztatzea, hesiak egoera onean daudela edo

askak urez gainezka daudela ziurtatzea dira Artaioek gauzatzen dituen eginkizunetako batzuk, informazioaren digitalizazioaren ondorioz gero eta arinagoak diren administrazio lanak ahaztu gabe. Horretarako, Foru Aldundiaren laguntza ere jasotzen dute, urterko kuotak ordaintzen dira eta Udalaren beraren babesa jasotzen dute jardura jakin baterako finantzaketa behar denean.

Emakumeak talde horietan egotea lehen sektoreko emakumeak balioestea da, baita Euskadiko erakundeek landa-munduan etorkizuneko proiektuak dituzten ekintzaileei laguntzeko egiten duten lana ere. Alde horretatik, Sheila baikorra da, eta burokrazia eta izapideak ez ditu hain deseroso ikusten, beharrezkoak direla uste baitu, eta ondoren merkatuan salduko den okela duten abereekin merkatura jotzeari lotutako erantzukizun ekintza bat.

Turtziozko gazteak argi dauka. “Ez da konplikatu emakumea eta abeltzaina izatea aldi berean, baina hori bizitzen duzun arte ez zara konturatzen zer den. Abereen maneia erraza da, betiere, zure ahalmenetara egokitzen baduzu. Egia da lan batzuek indar handia eskatzen dutela, baina, emakume gisa, gure negozioa gure gaitasunetara egokitu behar dugu, beldurra eta segurtasun ezak alde batera utzita.” Hori geureganatzen dugunean, bakarrik bizi gaitzkeela eta landa-ingurune batean bizitzeko eta lan egiteko gure ametsa bete dezakegula erakustea besterik ez da geratzen. Eta hori, Sheilak lortu du jada.

# CHARO GARCÍA FERNÁNDEZ



Elortza barazkiak proiektu bat aurrera ateratzeko 20 urtez egindako lan gogorraren eta ahaleginaren emaitza da, Charo García Fernándezek bere negozioa Urdulizen egonkortzeko ahalegina eta ardura jarri ditu. "Jack" tomatea eta letxugak, piperrak, lekak, kalabazinak edo luzokerrak bezalako beste barazki batzuk landatzea, merkaturatzea eta saltzea da emakume bizkaitar honen proiektua, zapata-dendatik negutegira aldatu eta gero, labore hidroponikoetan eta baratzezaintzarekin lotutako era guztietako ikastaroetan trebatu ostean. Gaur egun, BIHOEL Bizkaiko baratzezainen elkarteko lehendakaria ere bada.

## "Astean 40 ordu ez dira nahikoak"

Charo García Sopelan eman zituen haurtzaroa eta gaztaroa, landa-ingurunean, baserriko animaliaz inguratuta hazi zen, aitari baratzean laguntzen zion bitartean. Zapata-denda baten ardura hartu zuenean, ez zuen inoiz imajinatu azkenean nekazaritza-munduan amaituko zuenik.

Ezkundu eta gero, Urdulizera aldatu zen Charo, amamaren jaioterrira. Han, adiskide batek animatuta Derioko nekazaritza-eskolako ikastaro batean parte hartu ostean, ekintzaile bihurtzea erabaki zuen. Bere espiritu berritzaileari esker, negutegiarekin lotutako edozertan trebatzeari ekin zion hurrena; bonsaien edo lore moztuen ikastaroak edo izurriteei aurre egiteko ongarrri berriei buruzko hitzaldiak. Derioko eskolako irakasle batek berebiziko laguntza eskaini zion; aholkuak eman zizkion, eta bere proiektuan aurrera egitera bultzatu zuen.

Azkenik, bizibide horrek dakarren lan gogorraren jakitun den bere aitarekin batera, eta, hain lotua den landa-mundu hartan ez murgiltzeko aholkatu zion arren, Txarok Elortza bere ametsa gauzatzeko lursail bat aurkitu zuen auzoan, hori lortzeko, jakina, gogotik lan eginda.

Matxako artisau-gozotegia oso lotuta dago abeltzaintza-sektorearekin ere, Leticia amaren aldeko "Mundi" aitonak landu zuenarekin, alegia. Matxakoko gozokiek arrakasta izan dezaten, funtsezko osagaietako bat gurina denez, Leticia bizi dena bezalako 12 urte joan ziren agian belaunaldi-ordezkapenik izango ez duen negozioa finkatu ahal izan arte. Charok aitortu duenez, alabak, lan horren gogortasuna bertatik bertara ezagutzen duenak, ez du aski argi amak erretiroa hartzen duenean berak lan horri heltzea mereziko duen. Izan ere, 54 urteko emakume ekintzailearentzat negozioaren hastapenak eta eguneroko egitekoa ezin dira inola ere alderatu gaztetan uzta on bat lortzeko laguntze aldera aitaren

baratzean egiten zuen lanarekin. Elortza barazkiak hori baino askoz gehiago da.

Astean 40 ordu ez dira nahikoak. Charok astelehenetik larunbatera goizez lana egiten du, astearte eta ostegun arratsalde, igande eta ostiraletan MercaBilbaora joaten da prestatutako produktuak bi finkatzaile emateko, larunbatetan ontziratzen aritzen da, eta gauz fakturak antolatzeko astia lortzen saiatzen da. 2000 metro inguruko negutegian dabilen bitartean, Labelek ontziratzen duen tomate aparta zuzenean saldu ere egiten du. Jubilatu gizon-emakume ugari, kalitate bila dabilen gazteren bat eta inguruko edo Mungia bezalako hurbileko udalerrietako herritarrek whatsapppe egindako eskaerak. Charok aitortzen du bera badela bi hamarkadatan negozioa finkatzea lortu duen emakume ekintzailearen adibidea, baina landa-inguruneak benetan eskatzen duen dedikazioa ezagutu gabe, inori ez dio gomendatzen arlo horretan ekintzaile izatea. Hala ere, onartzen du beti sentitu izan duela erakundeen babesa, tratu zinez pertsonala jasota, horrek lagundu diola negozioa sendotzeko administrazio-burokrazia bideratzen, baina beharrezkotzat jo du ezagutzera ematea nekazaritzaren arloko edozein ekintzaile-proiektuk, poz ugari ematen baditu ere, energia asko kentzen duela. Zorionez, Charok oztopo guztiak saihesten jakin du, baita jasandako osasun-arazoak gaintzen ere, eta gaur egun ardurapeko langile bat izatea lortu du, lanbide honen eguneroko egitekoei hobeto aurre egin ahal izateko.

# IRUNE ABERASTURI FRANCO



Irune Aberasturi Franco 31 urteko Gauegiz-Arteagako gaztea da, eta, EHU<sup>n</sup> Odontologia ikasketak egin ondoren, Frantziara joatea erabaki zuen master bat egitera. Han, bikotekidea ezagutu zuen, seme bat izan zuen, eta ortodontzian eta zuzenbidean trebatzen jarraitzeko itzuli zen. 2023an bere enpresa propioa sortzea lortu zuen, Bizkaiko landa eremuetako eta ez hain landa eremuetako klinika txikiei ortodontzia zerbitzuak eskaintzeko asmoz. Markinan, lan eroso ez ezik, landa ingurunea eta bertako jendea ezagutzeko topagunea ere aurkitu du.

## Landa eremuan lan egitearen gertutasuna

Landa ingurunean ekitea ausardia ekintza bat baino gehiago da, eta konfiantza erakusten du, hala etorkizunarekiko nola ingurune horiek landa eremukoak izan gabe udalerrri horietan finkatzen diren proiektuak gauzatzeko duten egokitze-gaitasunarekiko.

Irune Aberasturi ortodontistak, EHU<sup>n</sup> Odontologia ikasi eta Frantzian 7 urte inguru bizi ondoren, Markinan ezarri zuen bere lan-bizitza, eta ortodontzia-zerbitzuak eskaini zizkien hainbat klinikari, ez herri horretan bakarrik, baita beste udalerrri batzuetan ere, hala nola Zornotzan, Durangon, Barakaldon, Gernikan eta Bermeon.

Gauegiz Arteagan jaioa eta ekintzaile autonomoen alaba, Irune etengabeko prestakuntzan ari da bere proiektuaren bidez zerbitzuak eskaintzen jarraitzeko. Unibertsitate ikasle ondoren Frantziara joan zen, eta bertan master bat egin, bikotekidea ezagutu eta familia bat osatu zuen. Zuzenbidean ere lizentziatu zen zaletasun hutsagatik, bere bokazioa ortodontzia izan baita betidanik. Hori dela eta, gaur egun ortodontziarekin zerikusia duten gaiak irakasten ditu unibertsitatean. Esan liteke bere curriculum dinamikoa dela, laneko egunerokotasuna bezala, eta hori abantaila dela eragozpen bat baino gehiago.

Ama izateak bultzatu zuen Frantziatik itzultzeraz, bere bikotekidearekin eta semearekin batera, hemen bere bizilekua ezartzeko, eta horrela ekin zion landa eremuko bere proiektuari. Inoiz ez da izan soldatapeko langile izateak sortzen dizun mendekotasunaren aldekoa, horrek ez baitzuten autonomia bera ematen, ezta trebatzen jarraitzeko eta ama-bizitza lanarekin bateratzeko beharrezkoa den ordutegi malgutasunik ere. Abantaila hori landa inguruneetan bizi diren pertsona ere bada; beraz, Irunek ere argi izan zuen alderdi hori. Onartzen du Bizkaiko landa eremuetako ortodontisten eskaintza baino handiagoa dela dagoen eskaria, prestakuntza partekatzen duten pertsona gehienek nahiago

duzelako beren lana hiri handietan egin, berak aukeratzat jotzen duena alde batera utzita.

31 urteko emakume hau oso ondo moldatzen da Markinako klinikan, eta adostutako egun jakin batzuetan egiten du lan bertan. Arnasten den giroa hurbiltasunarena eta konplizitatearena da, eta hori landa eremuko udalerrri batean lan egiteak ematen duen konfiantzazko tratuari esker gertatzen da, non pazienteak askoz erlaxatuago iristen diren eta askoz ere bizimodu lasaiaagoa duten. Izen-abizenak dituzten pazienteak dira, Irunerekin partekatzen duten historia dutenak eta haren lana are atsegingarriagoa izatea eragiten dutenak. Horixe da, agian, berak landa eremuan ekintzaile izan nahi duen edonor bere ametsa egia bihurtzeko borrokatzeraz animatzeko arrazoietako bat. Ez aurretik, ideiak argi izateko, baldintzak ondo kontsultatu gabe.

Izan ere, proiektu ekintzaile gehienak bezala, edozein autonomorentzako oztoporik handiena izapide burokratikoak eta dirulaguntza posibleak eskuratzeko paper-kontuak dira. Alde horretatik, Urremendi LGEK asko babestu zuen Irune, eta Mendinetek kudeatutako laguntzak jaso ahal izan zituen, 2023ko hasieran bere enpresa propioa sortzea lortzeko.

Ibilbide horretan, eta izapideak zailak izan arren, Iruneri poza eta lasaitasuna nabari zaizkio etorkizunari buruz hitz egitean. Etorkizun egonkor eta lasaia sumatzen du, eta unibertsitatean ematen dituen eskolak landa eremuetako ortodontzia-kliniketan lan egiteko gertutasunarekin uztartzen jarraituko du.

# KARMELE

## GISASOLA ZENIKAZELAIA



Karmen Gisasola Zenikazelaia 30 urteko diziplina anitzeko kirolaria da, 2023ko urtarriletik aurrera harri-jasotzaile eta aizkolari lanak Mallabiko bihotzean dagoen Zelai landetxearen kudeaketarekin uztartzen dituena. Zelai III.a ezizenarekin, familia-tradizioak Euskal Herriko emakume harri-jasotzaile Txapelketaren irabazle izatera eramanez du behin baino gehiagotan. Bere aitak, Jose Antonio Gisolak (Zelai I.ak), harriak jasotzen erreferente denak, Herri Kirolekiko zuen zaletasuna erakutsi zion, emakumeek ere diziplina horretan lekua dutela erakutsiz. Duela bi urtetik hona, belaunaldien arteko erreleboa egiteko proiektu baten buru da, ostatu bihurtu den baserri tradizional bat; bere amak jarri zuen martxan, emakume baserriar ekintzaile gisa, eta orain berak zuzentzen du.

### Familia-tradizioa eta landa-ekintzailtza

Zelai landetxea lasaitzera gonbidatzen duen landa-inguru eder batean dago, eta euskal herri kirol tradizionalen eta Zelairen aitorpenen museo ere bada. Harri-jasotzaile garrantzitsua da, eta bere ibilbidean zehar lortutako txapelak ikusgai daude 8 logelatan banatutako ostatu honen sarreran, 18 lagunentzako edukiera duena. Etxearen kanpoaldea Herri Kiroletan girotuta dago, eta pisu handiko harriak, artisautzako piezak, marmola edo granittoa ikus daitezke, landetxeari plus berezi bat emanez, Euskadi kanpotik etortzen diren bisitarien gozagarri. Izan ere, existitzen diren 18 herri kirol modalitateetatik 5 landetxean egin daitezke, bertan ostatu hartzen dutenentzat pizgarri izanik. Zalantzarik gabe, familiaren tradizio hori negoziario sartu da eta orain Karmeleren esku dago, amak ostatua eman ondoren.

Egia esan, proiektua 2008an hasi zen, bere amak aitona-amonen baserria berreraikitzea erabaki zuenean. Baserria eraitsita zegoen, eta landetxe bihurtu zuen, etxebizitzak mantenduz, familia bertan bizi ahal izateko. Ondo funtzionatu zuen, eta zerikusi handia izan zuen amak bezeroak tratatzeko zuen esku onarekin. Ondoren, Karmelek familiaren tradizio honekin ere jarraitzea erabaki zuen, eta ekintzaile gisa hasi zen lanean, askotan ama aholkulari eta anfitrioi gisa izanda. Bere bizitza baserri-ingurunera beti lotuta egon den arren, Karmelek argi zuen administratzaile gisa prestatutako zela eta pantaila baten aurrean lan egingo zuela. Sarririkoko Unibertsitatean (Bilbo) hiru urtez ADE ikasi ondoren, ikasketak utzi eta goi-mailako ziklo bat egin zuen Markinan. Lan egonkor bat aurkitu zuen, baldintza ekonomiko onekin eta etxetik gertu, baina ez zen indarberrituta sentitzen, eta bere amari etxeko eguneroko lanak egiten eskaintzen zion laguntzak bere lan-bizitza birplantatzerara bultzatu zuen, azkenean Zelairen aldeko apustua eginez.

Hasiera ez zen oso gogorra izan, belaunaldien arteko erreleboa

egiteko proiektua baitzen. Obra txiki bat eta hobekuntza batzuk eraikinean baino ez zuen egin behar izan, DEMA agentziaren laguntzarekin. Egoera oso bestelakoa izango zatekeen, baldin eta negozio hori Otik hasi behar izan balu, non amaren baldintzarik gabeko laguntza izan duen. Karmelek amaren funtzionamendua jarraitu du, bere esperientziatik ikasi du, bere irizpideari eutsiz eta bezeroen beharretara eta lehenetsunetara moldatuz, eta hori beharrezkoa da bereizteko eta bisitariak itzuli daitezen errazteko.

Orain arteko balantzea positiboa da, eta ilusioz egiten die aurre hurrengo urteei, landetxea txapelketekin, erakustaldiekin eta entrenamenduekin uztartuz, herri kirolei, bere pasio handienetako bati, dedikazioa mantenduz. Asteaz bost egunez entrenatzen du, baina landetxean lan gehiago egiten du asteburuetan; beraz, arazorik gabe uztartu ditzake biak. Garrantzitsuena ordutegi berrietara, ohiz kanpoko oporraldietara eta egun alternatiboetan atseden hartzera moldatzea da.

Karmelek aitortzen du familia-negozio honetan ekitearen gauzarik pozgarriena bezeroekin harreman zuzena izatea, haien lehenetsunak ezagutzea eta Zelaira hurbiltzen diren pertsonen aniztasunaz gozatzea izan dela eta izaten jarraitzen duela. Normalean, lanegunetan, denbora luzerako gela bat alokatzen duten langileak egoten dira landetxean, eta, asteburuetan eta oporretan, taldeak, familiak eta kuadrillak izaten dira etxe osoa erreserbatzen dutenak.

Dinamismo hori eta nolabaiteko ordutegi askatasuna nabarmentzen eta baloratzen ditu gazte ekintzaile eta kirolari honek. Zalantzarik gabe, Karmeleren lasaitasunak eta landetxeak euskal tradizioekin bat egiteak urteko edozein sasotian nahitaez bisitatu beharrek leku bihurtzen dute Zelai.

# LETICIA BARRERAS CANALES



Leticia Barreras Matxako okindegiko burua da Karrantza haranean, duela 3 urte inguruz geroztik, eta 100 urtetik gorako tradizioa duen familiaren negozioarekin jarraitzen du. Gozogintzan espezializatutako okindegi hau kudeatzen duen lehenengo emakumea da, eta Enkarterri eskualdeko marka ezagun honen produktu salduenak gurinezko pastak edo errege-opilak dira. Leticia bere aita Jesusen lekukoa hartu du, harengandik lanbidea ez ezik, autonomia izatearen etsipena eta horrekin bizirauten ere ikasi zuen.

## Familia negozio gozoa

Leticia 42 urte ditu, eta Matxako okindegiaren laugarren belaunaldia da 100 urte baino gehiagoz gizonak buru izan dituen negozioan. Duela hiru urte eskas, ordea, aita Jesussek erretiroa hartu ostean, Leticia gurasoarekin poliki-poliki ibilitako bide horri jarraitzea erabaki zuen. Karrantza bezalako udalerrri txiki batean, umetatik ikasi zuen herritarrekin harremanak izatearen garrantzia, bakoitzaren gustuak eta beharrak ezagutzeko. Horrela, egunero ogia atez ate banatzen zuen auzo guztietan, eta lantegian zebilenean, bere bizimodu bihurtu den lanbidea ikasteko aprobeztatu zuen. Gaur egun, bezero askoren etxeak gozatzeaz arduratzen da; izan ere, Matxako ogia bakarrik egiten hasi bazen ere, 25 urtez geroztik negozioaren zati bat gozogintzara bideratzen dute, gurinezko pastak, hostorezko palmerak, tartak edo erroskillak nabarmenenak dira besteak beste. Sukaldeko lanetan beti emakumea irudikatu izan den arren, Leticia mesfidantza moduko bat bizi izan du aitak utzitako negozioaren buru bihurtzean. Edonola ere, bere izaera baikorrari eta bizitza epe luzera planteatu gabe orainaz gozatzeko daukan moduari esker, ez du izan proiektua jarraitzea eragotzi dion ezer.

Beharbada, ikuspegi horretan eragina izan du esklerosi anizkoitzaren diagnostikoa jaso izanak, eta bi urtez saiakuntza kliniko bat egiteak. Dena dela, lanean ez da handinahia, nahiz eta landa-ingurunean emakume gehiagoren falta sumatzen duen, herrian belaunaldi-ordezkapenik gabeko lanean. Leticia bere semeak tradizioa jarraitzea espero du, okina izateko asmoa azaldu baitu, horren aldeko apustua egiteko gero eta ekintzaile gutxiago dituen sektorea dela aitortzen badu ere. Gaur egun ere, maskulinizatutako sektorea da, non Leticia bezalako pertsonak duten balioa egunegun erakusten den. Aitortu duenez, kide den Bizkaiko okinen elkartetik eta LGEn bitartez, finantzaketa bilatzeko jaso ditzaketen laguntzei buruzko informazioa iristen zaie aldizka. Baliteke nahikoa ez izatea, baina, egia esan, Leticia ez du ezagutzen Kontxa auzoko lantegi tradizionala ez

den beste bizimodurik.

Matxako artisau-gozotegia oso lotuta dago abeltzaintza-sektorearekin ere, Leticia amaren aldeko "Mundi" aitonak landu zuenarekin, alegia. Matxakoko gozokiek arrakasta izan dezaten, funtsezko osagaietako bat gurina denez, Leticia bizi dena bezalako anda-ingurunean dauden abeltzain eta negozioen lehengaitzat hartzen da.

Horregatik guztiagatik, Leticia familia izan du beti abentura gozo horretan murgiltzeko inspirazio-iturri.



# BIDANE BASKARAN ETXEBERRIA



Bidane Baskaran Etxeberría Markina-Xemeinen bizi den 34 urteko artzain gaztea da. Unibertsitatean Euskal Filologia ikasi ondoren, 2014an erabaki zuen bere familiaren urratsak jarraitzea eta Baskaran gaztandegiaren buru izatea, bere aitarekin eta nebarekin batera. Horretarako, Arantzazuko (Oñati) artzain eskolan trebatu zen, ardiaren sektorean belaunaldien arteko erreleboa bermatzen saiatzeko, eta eskualde osoko artzainik gazteenetakoa da. Gaur egun, 7.000 kilo gazta inguru egiten dituzte urtean, eta pieza horiek zenbait sari jaso dituzte, besteak beste, urrezko domina sektoreko nazioarteko lehiaketa ospetsuenean, 2022an.

## Markina-Xemeingo artzain gaztagilea

Txikitan, Bidanek bere Markina-Xemein maiteko etxebizitza batean bizitzea amesten zuen, familia-negozio horretatik urrun. Negozio horrek denbora asko kentzen zien gurasoei, eta ezin zuten areto-futboleko partiduetara lagundu. Ondo asko zekien abeltzaintza-ustiategi bateko buru izateak zer-nolako ahalegina eta lan gogorra eskatzen zuen, beti izaten baitzen zer egin; jetzi, abereak elikatu edo azoketara joan gaztak saltzera. Hala ere, familia-tradizioak pisu handiagoa izan zuen, eta 2015ean, artzain-eskolatik igaro ondoren, Bidane, gazteak lehen sektorean sartzeko Gaztenek dirulaguntza-programari esker, artzain gisa hasi zen lanean Barinaga familiaren baserrian, esnetarako ardiaren eta haragitarako behien ustiategian. Denborak aurrera egin ahala, sektorean finkatzea lortu zuten. Idiazabal jatorri-deitura duten hiru gazta ondu mota egiten dituzte: 2 eta 4 hilabete bitarteko ontzea duen gazta, 8 hilabeteko ontzea duen gazta eta gazta ketua.

Gaur egun, Bidanek latxa arrazako 450 ardi ditu, aurpegi beltzekoak, eta haragitarako 80 behi inguru, bere aita eta neba Arkaitzekin batera. Bere egunerokotasuna entretenigarria eta aldi berean bizia da. Abenduan eta urtarrilean, ardiak erditzen direnean, horiek zaintzeaz eta ondorengo hilabeteetan gazta egiteaz arduratzen da, abuztuaren jektuari uzten dioten arte. Udaberria larreak prestatzeko eta ganadua bazkaz elikatzeko garaia da. Horretarako, oso lan gogorra egin behar da, eta ordu asko eman behar dira horretan guztian. Gainera, bulegoko lana oso itogarria dela ere nabarmendu du Bidanek. Laguntzak justifikatzeko administrazio-eskakizunek familia-ustiategi txikien egunerokotasuna agortzen eta zailtzen dute.

Hori dela eta, eta ordutegiak eta denbora libreia ia existitzen ez diren dedikazio honek dakarren bizi-aldaketatik, Markina-Xemeingo artzainak horrelako proiektu batean sartu aurretik hausnarketa on bat egitea gomendatzen du.

Bidanek aitortu duenez, "lehenago egiaztatu beharko litzateke lan honen errealtatea, gizarteak uste baitu gure denboraz gozatzen dugula zelai berdeetan ardiak ikusten Heidi bezala". Eta egia esan, urtean 7.000 kilo gazta ekoiztea ez da horrela lortzen. Baskaranen kasuan, gazten %95 Bizkaian merkaturatzen dira, baina tokiko dendetan eta azoketan saltzeko banaketa-lana ere erabakigarria da. Taldean lan egiteak eramangarriagoa egiten du, baina, gaur egun, gure gizartearen estereotipoek zalantzan jartzen dute artzain-neska izatea. Bidanek behin baino gehiagotan egiaztatu du hori. Azoka batzuetan, emakumea eta gaztea denez, saltzaile hutsa dela pentsatzen dute. Birsaltzaileak ikusten dituztenean, artzainak ez direnak eta jektzen ez direnak baina "txapela" daramatenak, gaztagiletzat hartzen dituzte zuzenean, bera ez dela pentsatuz.

Ez da lan erraza gizartearen pentsamoldea aldatzea, baina Bidane Baskaranek erakutsi du emakumea, artzaina eta gaztea izan daitekeela lehen sektorean. Bere gazta mundu osoan zehar ibili da dagoeneko, eta irabazle bihurtu da sektoreko nazioarteko lehiaketa ospetsuenean edo Bilboko San Tomas azoka tradizionalan. Bidanek dio bere gazta bikaina dela, eta aitortu du bere berezitasunak pieza bakoitzean islatzen direla. Gatzagi naturala eta esne gordina erabiltzen dira, esne pasteurizatuak baino askoz onura gehiago ekarriz. Ardiak elikatzeko erabiltzen den bazkak eta larreen zaintzak zenbait ñabardura markatzen ditu, eta horiek gaztetan ere agertzen dira.

Zalantzarik gabe, familia-tradizio oso baten emaitza da, eta Bidane saiatu da bere emakume-zigilua ematen eta etorkizuneko proiektu horri jarraipena ematen, non Markina-Xemeingo artzainak aurrera jarraituko duen beste urte askoan.

# LOREA MOMEÑE FERNÁNDEZ



“Urigoitiko Txorizoak” kalitatezko hestebete marka ezaguna da, Lorea Momeñek gidatzen duen zuzeneko 0 km salmenta duena. Lorea Momeñek 45 urte ditu, Basaurikoa da jaiotzez, eta Orozkon bizi da duela 20 urtetik baino gehiagotik. Turismoan trebatu zen, baina ez zuen bere lanbidean jardun. Familia egoerak eta alaben zaintzak bere bizilekutik gertu zegoen negozio batean ekitera bultzatu zuten. Horrela sortu zen Urigoiti auzoan txerriak aske hazteko ganadutegi ez oso hain konbentzional hau, eta haren jabe da gaur egun, senarrarekin batera. Ustiatagia bilakatuta, kalitatezko hestebeteak ekoizten hasi zen, eta merkatuan finkatu zen bezero leialekin. Hainbat sari jaso zituen, eta ustiatagi hori bihurtu zen familiaren elikagai bakar. Gaur egun, Saskia Bizkaiko landa-eremuko emakume enpresarien elkarteko presidentea ere bada Lorea, eta bere lana eta dedikazioa balioesten saiatzen da.

## “Zuzeneko salmentak bezeroen fidelizazioa errazten du”

Duela ia 13 urte, Lorea Momeñek, Urigoiti auzoan bizi zen bi neskatoren amak, erabaki zuen landa-ingurunean ekitea, alabak zaintzea erraztuko zion lan bat bilatuz, bere bizilekutik gertu egongo zena eta bere familia berak bakarrik mantentzeko adina ahaldunduko zuena. Landa-ingurunearekiko lotura lehendik ere bazeukan, haren familia beti egon baitzen naturari eta abeltzaintzari lotua. Arrazoi zehatzik gabe, baserriaren ondoan zeuden hainbat hektareatan askatasunean zegoen txerri-abeltzaintza bat martxan jartzea erabaki zuen, larreak eta pinudietako lurra aprobetxatuz, horrez gain transgenikorik gabeko pentsuarekin hazitakoak ziren animalien mantenu gisa. Hasieran, bera izan zen ehun txerri baino gehiago zituen ustiategiaren jabe bakarra. Hori berria da inguruan, gure baserriek betidanik izan baitituzte txerrikumeak, baina proportzio txikiagoan. Loreak hasiera zirrarragarri eta, aldi berean, abenturazale hori gogoratzen du, animalia horien izaera lagunkoiagatik eta portaeragatik, eta, batez ere, landan eskatzen zituzten beharregatik. Denborak aurrera egin ahala, Lorea gai burokratikoek, banaketaz edo/eta zuzeneko salmentaz gehiago arduratzen joan zen merkatuetan, eta bere bikotekidea proiektura batu zen, bere orduko lana utzi eta txerrien zaintzaz eta elikaduraz arduratzen hasita.

Hasieran, Basatxerri kooperatibaren bidez aberea gizendu eta saltzen aritzen ziren soilik. Hestebeteak ekoizteko ideia gero etorri zen, kontsumo propiorako egin eta inguruan gustuko gertatu zirenean. Kideek animatuta, berriz ere ekitea erabaki zuen, eta txorizoa, saltxitxoa edo pateaz bezalako jakiak egiten hasia. Hestebete horiek hainbat sari jaso dituzte azken urteotan, eta osagai naturalekin bakarrik egiten dira. Hori dela eta, gure gastronomiako produktu izartzat jotzen dira gaur egun.

“Honaino iristea eta familiaren negozio hau sendotzea esperientzia polita izan da, baina, batzuetan, zaila”, Loreak aitortzen duen moduan. Hala ere, zuzeneko salmentaren alde egin zuenean aurkitu

zuen, agian, negozio horren alderik pozgarriena. “Lana askoz gehiago baloratzen da, bezeroek zure izenaz deitzen dizute, jasotzen den tratua zuzena askoz ere erosoagoa da, eta salmenta egonkorragoa ematen dizu”. Hasieran, azoka eta merkatuetara joaten ziren produktua saltzera, baina pandemia puntu eta aparte bat izan zen logistikan. Azoka guztiak bertan behera utzi zituzten, eta negozioa egonkortzea lortu zuten, inguruko bezero finkoei etxez etxeko zerbitzua eskainiz. Horren ondorioz, normaltasunera itzultzean, zuzeneko salmentan jarri zuten arreta Bilboko, Basauriko eta Galdakaoko Gure Lurreko Merkatuetan, besteak beste. Izan ere, kontsumitzaile fidelak dituzte, eta horrek salmentak egonkortzea ahalbidetu du. Hori gutxi balitz, duela gutxi, eta Urduñako lagun batek bultzatuta, azokaren batera joaten hasi dira, Orozkoko txorizoarekin talo goxoak dastatu daitezkeen “txosna” edo posturen batekin. Proiektu ekintzaile berri hau Maizu Txakolinakekin (Urduña) batera garatzen ari dira.

Zalantzarik gabe, eta izandako onarpenaren ondoren, “Urigoitiko txorizoak” marka ezagutzen dutenek Lorearen eta bikotekidearen lana eta dedikazioa baloratzen dute, eta, batez ere, gero beren mahaian jartzen dituzten produktuen kalitatea.

Hori dela eta, salmenten ziurgabetasuna atzean geratu da, familiari lasaitasuna eta patxada ematen dion egonkortasunari bide emanez, eta ekoizpen guztia saltzera iritsi dira, “Urigoitiko txorizoen” kalitatea mantentzen saiatzen direnen lanari eta dedikazioari esker.

Ezbairik gabe, Mungiako San Antontxu azokan Euskadiko txorizorik onenaren saria behin baino gehiagotan irabaztea errekonozimendu hutsa baino gehiago da, Lorea Momeñe harro egoteko moduko ondo egindako lanaren emaitza.

# GIPUZKOA

Ana|Ane|Maite|Maite|Itziar|Izaro|Maitane



# ANA EIZAGIRRE LARRAÑAGA

Ane Eizagirre Larrañagak oso ondo daki zer den aurrera atertzeko borrokatzea eta zein garrantzitsua den landa-inguruneko emakumeek bat egitea beren baldintzak eta osasuna hobetzeko. Aizarnazabalen jaioa, duela 45 urte joan zen Zumaiara bizitzera, senarrarekin batera Santa Klara lursaila hartzeko. Gipuzkoako udalerriko landa-eremu ederra da, itsasotik gertu dagoen ingurune pribilegiatu batean. Bertan, familia bat osatu zuen eta landa-turismoa dibertsifikatzeko proiektu bati ekin zion, bai eta abeltzaintza-ustiategi bati ere, belaunaldi-erreleboa bermatuta duena. Emakume temati eta nekazina da, eta elkarrekin duen loturari esker, ADR Urkome eta Hitzez landa-inguruneko emakumeen elkarteko buru da gaur egun, bai eta Landaola, Gipuzkoako landa-garapen elkarten federazioko buru ohia ere.

## Guztion onerako elkarrekin lan egitea

Santa Klara lursaila bisitatzea naturarekin erabateko kontaktuan sartzera da, Zumaiako erdigunetik minutu gutxira eta itsasora begira dagoen landa-ingurune batean barneratuz. Gaur egun, eremu hau landa-inguruneko dibertsifikazioaren adibide garbia da. Bertan, nekazaritza-turismoko establezimendu bat, apartamentu bat eta esnetarako behien ustiategi bat duen landetxe bat daude. Ustiategi hori Ana Eizagirrek kudeatzen du, bere bi alaba Maite eta Aneren laguntzarekin, Santa Klaran belaunaldi-ordezkapena bermatuko dutenak. Istorioa duela hamarkada batzuk hasi zen, senarraren aitona-amonak lursail horretan finkatu zirenean, eta, hainbat belaunaldiren ondoren, Ana, 16 urterekin ezkondu bezain laster, leku magiko horretara joan zen, non etorkizuneko eta bizitzako proiektua hasiko baitzuen. Hasiera gogorra izan zen, baita abeltzaintza-ustiategiaren egonkortzea ere. 80ko hamarkadan esnearen prezioa oso baxua zenez, emakume abeltzainek ostalaritzarekin lotutako beste enplegu bat bilatu behar izan zuten. Horrela ezagutu zuen Anak hotelen sektorea, eta, denboraren poderioz, bere ostatu-proiektua sendotzea eta abeltzaintza-ustiatagia mantentzea lortu zuen. Negozioa egonkortzeko bidea gogorra eta oztopoz bete izan zen, baina Anaren kemenak eta ezbeharren aurrean zuen baikortasunak aurrera egitea eragin zuten, lursaila dibertsifikatzea eta proiektua sendotzea lortu arte.

2015ean senarra hil, eta errekupeazio luzea eta zaila izaten ari den istripu bat izan zuen arren, Anak lanean jarraitu du eta landa-ingurunean emakumeak duen papera aldarrikatzen jarraitu du, burokrazia bizkortzeko eta laguntzak izapidetzeko beharra azpimarratuz, abeltzaintza gehiago itxi behar ez daitezen eta maileguak garestitu behar ez izateko. Hala ere, bere jarrera positiboa da, "arazo larrienak ere konponbide batekin argitzen dira" baieztatuz. Urkome landa-eremuen garapeneko elkarteko presidentea den aldetik, funtsezkoa ikusten du proiektuak sortzea, batez ere gazteak landa-ingurunean finka daitezen, aldeztatik ingurune horren errealitatea ezagututa. Urteetan zehar izandako esperientziari esker, hauteman du ekin nahi duten pertsonen edo abeltzaintzako edo nekazaritza-ustiatagietako buru direnei ez zaiela informazio zuzena helarazten. Adibidez, ustiatagien titularrak izan gabe baserrian laguntzen duten pertsonentzako laguntzak daude, edo erretiroa hartu ondoren seme-alabak edukitzeagatik

ematen diren dirulaguntzak. Gure eskubideei buruzko informazioak ez izateak eragiten dio Anari informazioa interesdunei modu zuzenean helaraz dadin eskatzea. Hala ere, erakundeek antolatzen dituzten hitzaldi, tailer edo jardunaldietara gehiago joateko beharra azpimarratzen du, beste eskualde batzuekin eta onuragarri izan daitezkeen beste proiektu batzuekin loturak ezarri ahal izateko. Anak, besteak beste, Trebatu proiektua nabarmendu du. Gipuzkoako ekimen horrek prestakuntza eta praktika gune bat eskaintzen die nekazaritza-jardura batean hasi nahi dutenei, inbertsiorik egin behar izan gabe.

Bestalde, Hitzez elkartearen sortzaileetako bat izateak aukera eman dio 2007an hasi zenetik landa-eremuko emakumeentzako laguntza psikologikoa lortzeko borrokan aritzeko. Taldeak egindako lan horri esker, landa-eremuari lotutako emakumeen osasun mentala hobetzeko hitzaldiak eta prestakuntzak egin dira, landa-eremuko ekintzailetzaren bide luzean esperientziak eta zailtasunak partekatzeko aukera emanez. Alde horretatik, Ana Eizagirrek lan nekazina egin du eragozpenak oztopotzat hartuz, eta ez arazotzat. "Zatitzen baduzu, ahuldu egiten zara, eta elkarrekin lan egiten baduzu, guztiontzat onuragarriak diren proiektuak lortzen dituzu." Horregatik da garrantzitsua Anarentzat emakumeen bizi-kalitatea hobetuko duen elkarrekin-lana izatea.

Nolanahi ere, Ana emakume borrokalariaren adibide bat da, eta batzuetan bizitza erraza izan ez badu ere, ezbeharren aurrean ahalduz lortu du jarrera pragmatiko batekin eta landa-eremuko emakumeari ikusgarritasuna emateko etengabeko borrokaekin. Zumaiako Santa Klara lursaila inoiz amore ematen ez duen emakume baten ahaleginaren eta kemenaren ondorioz sortutako leku baketsua da. Bertan, bere lau seme-alabetako birekin batera esnetarako behien ustiatagia eta ostatu kudeatzen ditu.

# ANE ARANBURU SEGUROLA



Ane Aranburu Seguroa Ikus-entzunezko Komunikazioan eta Haur Hezkuntzan graduatua da. Landa-ingurunea eta irakaskuntza dira bere bi grina nagusiak. Ama izan zenean jakin zuen hori, eta Aizarnan kokatu zen, Zestoako landa-enklabe batean, Gipuzkoan, landa-ingurunearekiko eta, oro har, naturarekiko grinak bultzatuta. Gurasoen bidez baserria ezagutzen bazuen ere, Azpeitian jaio eta hazi zen. Bikotekidea, berriz, Aizarnan bizi zen, eta zalantzarik egin gabe hara joan zen bizitzera. Anek senarrarekin batera duen oiloen abeltzaintzako ustiatagia eta arrautza ekologikoen salmenta indartu nahi izan ditu, eta bisita gidatuak eskaintzen dizkie haurrei eta senideei, landa-ingurunea eta haren onurak ezagutu ditzaten.

## Naturarekin harremanean egotearen abantaila

Naturarekin harremanetan lan egitea eta espazio berean gure seme-alaben heziketa elikadura osasungarri eta naturalarekin uztartu ahal izatea abantaila bat da edozein familiarentzat, eta, aldi berean, ia betetako ametsa Ane Aranburu Segurolarentzat. Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziaduna izan arren, prentsa-oharrak utzi, eta oiloen abeltzaintzako ustiatagia eta arrautza ekologikoen zuzeneko salmenta hartu zituen. Laster, txikienek aukera izango dute bisita gidatuen bidez familia-negozio hau bisitatzeko eta ezagutzeko. Amatasunak inspiratu zuen proiektu liluragarri horretan, eta Haur Hezkuntzako Irakasle ikasketak egin zituen.

Ane Azpeitian jaio eta hazi zen, duela 17 urte lurraekin kontaktuan zegoen bizitza aldaketa baten bila utzi zuen udalerrian, bikotekideak bultzatuta eta, batez ere, mendiz eta aire garbiz inguratuta bizitza-proiektu bat sortzeko aukerak akuitatuta. Zestoako Aizarna landa-auzoa aukeratu zuen bizitzeko, eta duela hamar urte oiloen hazkuntzan eta arrautza ekologikoen komertzializazioan oinarritutako proiektua sortu zuen. "Ertxineko Arrautza Ekologikoak" bere bikotekidearen ilusioa zen, oso proiektu motibagarria, baina hasierako urteak gogorak izan ziren abeltzaintzako lan handiarengatik, eta, maila pertsonalean, familia handitu eta emakume gisa uztartzea ez zen lan erraza izan. Zuzeneko salmentak prezio eta produktuekin burujabea izatea eskatzen du, baina baita denda txikietan, jatetxeetan edo gozotegietan banatzeko errepidean ordu asko ematea. Jarduerak asko lotzen bazaitu ere, nolabaiteko malgutasuna du haurrak hazi ahal izateko, eta, horri esker, irakasle aritu ahal izan da tarteka, eta proiektu berriarekin ere ilusionatu da. Horrela, nekazaritzako jarduera dibertsifikatu ahal izango du, fruta salduz eta haurrei harrera egiteko espazio bat egokituz, bisita gidatuen bidez naturarekiko harremanaren, bat-bateko jolas librearen eta landa-ingurune talde dinamiken garrantzia erakusteko. "Gaztaintxulo" da Aneren asmo berria. Bertan, aldi berean erakutsiko ditu bere hezkuntza-trebakuntza eta

landa-inguruneak haurrengan kontzientzia sortzeko duen ahalmena. Horretarako, inbertsioa egingo du bisita gidatuak hartuko dituen espazio itxi bat egokitzeko, egurrezko egitura bat, familiaren abeltzaintzako ustiatagiari eta ingurune naturalaren filosofiarri eusteko. Ildo horretan, LEADER laguntza oso lagungarria izango zaio. Dena dela, onartzen du administrazio-izapideak, oro har, gogorak eta luzeak direla, eta traba bat direla horrelako proiektuekin jarraitzeko. Batzuetan, prozesu horretan, bakarrik sentitzen zara, eta amets bat betetzeko ilusioak baino indargabetzen ez duena. Urte hauetako esperientziaren ondoren, Anek pazientzia izatea eta borrokatzea gomendatzen du, landa-ingurunea indartzen eta zaintzen jarraitzeko, berak laster Aizarnan finkatuko duenaren bezalako proiektuekin. Ziurrenik, aurki "Gaztaintxulo"k irribarre ugari banatuko ditu espazio naturalak partekatzearen onurak ezagutzera hurbiltzen diren haurren artean.

# MAITE ARISTEGI LARRAÑAGA



Maite Aristegi Larrañaga orain dela 62 urte jaiotzen Bergaran, koskortu, bizi eta landa-ingurunearenganako grina piztu zion baserri berean. Leku horretan bertan ekin zion bere lan-proiektuari, gurasoen abeltzaintza -eta nekazaritza - ustiategiari lotuta. Gainera, dibertsifikazioaren alde egin, eta landa-turismoko etxe bat jarri zuen abian duela mende laurden bat. Zuzenbidean lizentziaduna da eta ibilbide politiko ezaguna du egina. Maitek hamabost urtez lan egin zuen EHNE sindikatuan, baserriko jarduera eta, jakina, lehen sektoreko etorkizuneko proiektua alde batera utzi gabe. Urteak igaro ahala lortu du negozioa egonkortzea eta errentagarri izatea, baina Maitek emakume baserritarren zeregina eta baliabideak errentagarri bihurtzeko duten gaitasuna aldarrikatzen jarraitzen du.

## Dibertsifikatzeak eta baliabideak aprobetxatzeak duen garrantzia

Maite Aristegik argi du baserriko emakume tradizionalaren pentsamoldea eta izaera direla jarraitu beharreko eredu abeltzaintza- eta nekazaritza-ustiategia aurrera ateratzeko. Tradizioz, familiaren ekonomia errentagarri izateko, ezagutzak praktikan jartzen ziren, baliabideak bilatzen eta aprobetxatzen ziren, luraren ezaugarriak, argia eta malda oso kontuan hartzen ziren, eta ahalegina egiten zuten beti bezeroak zaintzen, konfiantzako loturak estutuz eta salmenta askoz zuzen eta hurbilago eskainiz. Azken urteotan, dibertsifikazioan oinarritutako eredu tradizional hori kolokan egon da, eta administrazioak eskatu duen nekazaritza-ereduak gero eta autonomia gutxiago du eta nekazaritza-politiken mende dago. Horren guztiaren ondorioz, beste transakzio-sistema batzuk agertu dira, zuzeneko salmentari balioa kenduta eta pentsamendu maskulinizatuagoa lehenetsita.

Horren aurrean, Maite beti saiatu da gurasoen urratsei jarraitzen, duela 62 urte jaiotzen baserrian, bertan jarri baitzuen bere lan-bizitzaren proiektua. Bere prestakuntzak ez du zerikusirik lehen sektorearekin, Zuzenbideko ikasketak egin baitzituen UNEDen, baina argi eta garbi dio oso ezagutza baliagarriak direla edozein arlotan. Horregatik, prestakuntza horrek eta Bergarako birika berdean jaiotzen eta bizi izanak —hirigunetik kilometro eta erdira soilik, landa-inguru pribilegiatu batean— aukera eman diote emakume ekintzailearen eredu izateko, bere lana eta lantokia maite dituen emakumearena. Haren familiak hainbat hamarkadatan kudeatu zuen abeltzaintzako ustiategia. Txahalak, ardi-gazta eta behi-esnea merkaturatzen zituzten batez ere, eta behi-azienda zen ugariena. Osasun-baldintzen ondorioz familiak ustiategian inbertsio handiagoa egin behar izan zuenean, eta hamabost urtez EHNE sindikatuan lan egin ondoren, Maitek egoera aztertu zuen, belaunaldien arteko erreleboa egiteko, eta baserriaren gidaritza hartu zuen neba Aitorrekin batera. Behi-esnea utzi, eta negozioa zentralizatu zuten Idiazabal izendapeneko

ardi latxaren gaztaren ekoizpenean eta baratzeako produktu ekologikoen zuzeneko salmentan.

Senarrarekin batera, landa-aldeari erabat lotutako proiektu berri bati ekin zion, eta landa-turismoa jarri zuen baserri berean. Garai batean laguntza ekonomikoa jaso zuten obrak egiteko, eta, 25 urtez zutik egon ondoren, gaur egun "Lamaino Etxeberri" erreferentea da Bergaran, ostatuaren eskaintza mugatua da eta. Baina, batez ere, naturaz inguratutako lekua da, aukera-aukerakoa ikasleek, aldi baterako langileek eta asteburuetakotako turistek Bergarako udalerriak duen baliabide honen abantailaz goza dezaten.

Inspirazio-iturri izan zuen emakume baserritarraren ereduari jarraituz, Maite Aristegik aukera izan du abeltzaintza -eta nekazaritza - ustiategia dibertsifikatzeko, baserri tradizional biziaren xarmari eta familiako tradizioari eutsiz.



# MAITE OTAÑO URKIZU

Maite Otaño Urkizu Donostian jaio zen, eta Lasarten bizi izan zen urte askoan. Administrazio-ikasketak egin zituen, eta bulegoko lana egin zuen, harik eta, bere bikotekideak bultzatuta, lana utzi eta Urnietako udalerrira joan zen arte. Han, duela 27 urte, belaunaldien arteko errelebo-proiektu bati ekin zioten Gurutzeta baserrian. Bertan finkatu zuten bizilekua, eta jarraipena eman zioten ordura arte senarraren amonak eta amak kudeatutako baratze ustiapenari. Gaur egun, 50 urterekin, Gipuzkoako Lorazale eta Barazkigileen Elkarteo (GILBE) presidentea da. 150 bazkidek osatzen dute elkarte.

## “Gizartea ez dago prestatuta nekazaritza lanera dedikatzeke”

Maite Otaño nekazaria da, eta bere dedikazioa lan konbentzional gisa ulertzen du, ez bizimodu gisa. Agian, horregatik, bere semeak eta alabak, hogeitaka urtekoak biak, bestelako bideei ekin diete, oraingo, nekazaritza-ustiapenarekin zerikusirik ez duten beste formazio batzuekin. Zalantzaren onura eman diezaikegu, Maite ere ez baitzen gai horretan trebatu, eta ezkondu ondoren utzi baitzuen atzean lan administratiboa, bikotekidearen tradizioari jarraitzeko. Ia ezagutzarik gabe, familiaren negozioarekin jarraitu zuten, pixkanaka hura kudeatzeko prestatuz, eta, besteak beste, landare-osasunerako produktu kualifikatuak aplikatzeko tailerrak eta ikastaroak egin zituzten. Ez ziren berehala sartu horretan, modu mailakatuan baizik, ez baitzen proiektu berria. Hori dela eta, eta nahiz eta lan-bolumena oso altua izan, lurrarekin izan zituen lehen kontaktuak pixkanaka sortu ziren. Gaur egungo egoerak ez du zerikusi handirik Maiteren lehen urrats horiekin. Gaur egun, Oztaran auzoan bizi dira, eta baserriaren ondoan lursail bat dute, aire zabaleko baratzea eta tunel-berotegiak dituen; azken horietan, garaian garaiko barazkiak eta lore moztuak ekoizten dituzte, batez ere krisantemoak eta gladioloak. Egia da gero eta dedikazio txikiagoa eskaintzen diotela loreak ekoizteari, baina merkaturatzen diren barazki zapoetsuak salmenta zuzenaren bidez baino ez dituzte merkaturatzen, Hernaniko Udaletxeko etxabeetan, goizero, astelehenetik larunbatera, edukitzen duten postuan.

Dibertsifikazioa lantzea, bertako produktua hurbiltzea eta haren kalitatea indartzea dira Maitek urte hauetan guztietan bete dituen desafio nagusiak. Hala ere, onartu du baratzeak, oro har, izaten direnak baino ordu gehiago eskatzen dituela, ordutegi finkorik gabe eta lana inoiz amaitu gabe, beti geratzen baita zerbait egiteko. Alde horretatik, denbora falta areagotu egiten da izapide guztiak behar bezala egin behar ditugunean. Lan burokratikoak, produktuaren dibertsifikaziotik lan egiten denean, zaildu egiten dira eta lan gehiago ematen dute, nahiz eta, Maiteren kasuan, izapide administratibo batzuk egiten dizkion gestoria bat duen. “Ustiategira joaten bazara, ez zaude bulegoan; eta bulegoan bazaude, ezin duzu baratzea artatu”, aitortu du etsipenez.

Lehen sektorearekin lotutako proiektu gehienetan nabari den desabantaila horrek ez dio eragotzi Maiteri Gipuzkoako baratzezainen eta lorezainen elkarteko presidentetza hartzea. 150 bazkidek osatzen dute GILBE, eta elkarteko kideei eta beste bezero batzuei ematen die zerbitzua, hala nola baserriarrei eta abeltzainei, lorezaintza-enpresei, eta Gipuzkoako eta Euskadiko gainerako lurraldeetako erakundeak.

Zizurkilen du egoitza, eta bazkideek beren biltegian egin ditzakete erosketak. Bertan, aire zabaleko baratzean zein berotegian ekoizteko behar diren produktu guztiak dituzte. Zalantzarik gabe, zerbitzu atsegina da, sektorean dihardutenei laguntzen diena. Maite harro dago zuzentzen duen elkarteaz, bazkideek babestuta sentitzen da eta zuzendaritza batzordeak aintzat hartzen du. Batzuetan, horrelako entitate maskulinizatueta emakume izatea ez da lan erraza, baina ez da hori Maiteren kasua. Agian, eragozpen handiena sektorearen etorkizunean edo, hobeto esanda, gaur egungo gizarteak lanaz duen pertzepzioan aurkitzen duena da.

Azken urteetan, landa-eremuan eta lehen sektorean ekintzaile direnen kopurua nabarmen murriztu da, eta, Maiteren iritziz, hori, batez ere, bere baratzezaintzarenaren gisako proiektu bati eskaintzen zaion dedikazioa erabatekoa delako gertatu da. Oporrak eta asteburuak ez dira existitzen, eta uda garaian lanaldia 18 ordura arte luzatu daiteke egunero. Gaur egungo gizarte honen kontzeptua ez dator bat nekazarien eta abeltzainen egunerokotasunarekin, bizitza ideala baitugu jomuga, ordutegi murriztuek, familia-kontziliazioak eta lan-jardunaldi aldazinek markatua.

Merkatuaren eusten diotenen, lehia txikiagoa dagoenez, beren negozioak aurrera atera ahal izango dituzte sinesgarritasunez, baina jende gutxi dago prestatuta tamaina horretako proiektuetan murgiltzeko. Hala eta guztiz ere, Maite Otaño baikortasunez egiten dio aurre Gurutzeta baserriaren etorkizunari, eta sasoiko barazki gozo eta osasungarriak eskaintzen jarraituko du.



# ITZIAR DE LA GRANJA ALUSTIZA

Itziar de la Granja Alustiza Arte Ederretan lizentziatua da, eta 54 urterekin lortu du bere proiektu artistikoa sendotzea Zegaman, duela 16 urte Donostiatik bertara joan ostean. Ez da lan erraza izan, lizentziatu eta gutxira 1990eko hamarkadako krisia hasia baitzen, eta oso zaila izan baitzen artearenganako zuen grina gauzatzea. Alde batera utzi zuen hainbat urtez, eta, bitartean, familia -

negozio batean lan egin zuen, ostalaritzan, eta lokal bat ere kudeatu zuen ahizparekin, merkataritza-gune batean. Hala ere, antsietateak eta estutasunak hartuta, dena errotik aldatzea erabaki zuen, eta familiarekin batera jo zuen landa-aldera. Horrela sortu zen "Zumitz.i", bere arte-negozioa. Aukera ematen dio bere bokazioa gauzatzeko, sorkuntza-lanetarako lokal bat edukitzeko, bezero hurbilenekin zuzeneko harremanak izateko eta bere ametsa betetzeko naturan lasai gozatzu.

## Landa-aldean sortzeko artea

Itziarrek inspiratzeko duen espazioa zabala eta hotza da, baina,aldi berean, urte hauetan bere eskuekin sortu dituen pieza asko biltzen ditu. Gehienak zumez, gaztainondo-zurez edo zuntz naturalez eginda daude. Bi atek eta korridore estu batek bananduta, Itziarrek gela txikiago bat du. Hor, pintura- eta eskulan-eskolak ematen dizkie Zegamako haurrei. Nolabaiteko kaudimena du, ahalegin handia eginez lortua. Bilboko atelier batek ere haren lana aitortu, eta pieza artistiko handiak egiteko eskatzen dio.

Aski zaila izan da horraino iristea. Ostalaritzatik ihesi eta bere bizitza soiltzeko asmoz, Itziarrek familiarekin batera erabaki zuen Donostia utzi eta bizimodu berri bati ekitea, Gipuzkoako hiriburuko zalapartatik urrun. Amaren jaioterriak, Zegamak, aukera eman zion bere seme-alaben haurtzarora berreskuratzeko, eta tarte bat eman zion bere etorkizuneko proiektuaz gogoeta egiteko. Hasieran gertatu ohi denez, eta landa-ingurunerako joateak ekarri zion erabateko aldaketa kontuan hartuta, gogorra egin zitzaion, sortzeko gai izan arren ez baitzekien nola jokatu lan-arloan. Ikastaroak ematen hasi zen, Ordiziako, Segurako eta Beasaingo kultura-etxeetan eta erretiratuen etxeetan, baina pandemiak hori eten zuen. Hala ere, geldialdi horretan Zegamako lokal batean kokatu zen, tailer txiki bat jarri zuen bertan eta eskulan-eskolak ematen hasi zen. Horietako batean Inaxi ezagutu zuen, eta hark saskigintzarenganako zaletasuna erakutsi zion. Etapa berri bati ekin zion horrela, zumea landuz, eta inguruko bizilagunen jakin-mina piztu zuen.

Gero, "Aterki Solidarioa" lehiaketa irabazi zuen zumezko pieza batekin, herri-bozketan. Horren ondoren, lankidetzan hasi zen Ormaiztegin eskultura bat egiten, aldarrikapen gisa, eta Zumarraga Bidebia proiektu turistikoan parte hartu zuen. Proiektu txiki horiek pizgarri handia izan dira Itziarrentzat, baita negu garaian jende guztiarentzat antolatzen dituen saskigintza-tailerrak ere. Bere proiekturako interesgarriak diren pertsonak ezagutu, eta harremanak estutu ahal izateak mesede handia egin dio. Izan ere, Bilboko atelier baten bidez, piezen aldizkako enkarguak lortu ditu; ez ditu sinatzen baina gogo handiz egiten ditu. Modu bat da lana

ikusgarri jartzeko, merkaturatzea zabaltzeko eta zailtasunei aurre egiteko. Ildo horretan, aitortzen du Hazik informazioa eman diola laguntzak eskatzeko. Batzuetan, bere inguruan, oztopo txikiak ere jarri izan dizkiotela onartzen du, eta horiek saihesten jakin izan duela, beti entitate horren babesa izan duela sentituz. Nolanahi ere, Itziarrek bere burua prestatzen jarraitzen du sorkuntza-lana egiten jarraitzeko. Epe mugatuetan eskaera handi batekin laguntza behar duenean, bere bikotekidearen babesa izaten du beti, eta tailerrera joaten da laguntzera. Hala ere, konpromiso horren falta sumatzen du batzuetan, erreleboarekin jarraitzeko ikasteko prest dauden pertsonak aurkitzeko orduan.

Hortaz, Itziarrek lankidetzan aritzeko modua bilatzen jarraitzen du, eta amets egiten du etorkizuneko dekorazioan eta produktuen salmantan oinarritu ahal izateko, eta ez hainbeste eskulan- edo pintura-klaseetan. Bitartean, erronka gisa hartzen du eskaera bakoitza, eta pieza bakoitza lan polit bat da, gero eta hurbilago jartzen baitio etorkizun hori, alegia, landa-alde zoragarri honetan sortzen jarraitzeko aukera.



# IZARO ZUBIRIA IBARGUREN



Izaro Zubiria, 35 urterekin, emakume ekintzailea da, dinamikoa, geldigaitza eta landa-ingurunean dibertsifikatzeko proiektu argia duena. Zaragozan egin zituen albaitaritzatik prestakuntza handi baten atariko baina ez ziren izan, eta, horri esker, esperientzia eta ezagutza ugari jaso ditu denborak aurrera egin ahala. Abereen elikadura edo segurtasuna eta elikagaien kalitatea dira, besteak beste, Eusko Jaurlaritzak Neiker animalia-ekoizpen sailean lan egiteko 2014an emandako doktoretza aurreko beka bati esker landu dituen gaietako batzuk. Bi master egin zituen, Lurgintza kooperatibako kide izan da eta landa-lana ezagutu du, peoi gisa ere aritua baita esnetarako behi-azienda duen basetxe batean. Bere kezka eta esperientzia guztia baliatu du Lizartza udalerrian “Uetako Etxaldea” izeneko proiektu familiarri hasiera emateko.

## Familia osoarentzako etorkizuneko proiektua

Oraindik ez daki oso ondo nondik etorri zitzaion lehen sektorearekiko pasioa. Bere gurasoak Tolosakoak dira, eta bera Gaztelukoak, baina laster Lizartzara joan zen bizitzera. Lizartza 600 biztanle baino gehixeagoko herri txiki bat da, eta bikotekideak, pilotari profesionala, lurrak eta baserri familiarra zituen herri horretan. Betidanik gustatu izan zaizkio animaliak, batez ere zaldiak, eta horregatik erabaki zuen Zaragozan albaitaritzatik ikastea. Ez zuen lortu hirian egokitzea, ez zen bere lekua eta amaitu orduko itzuli zen, gustuko duen horretan trebatzen jarraitzeko; baserria eta animaliak.

Familia hazi egin zen, landako bizitza txiki-txikitatik ezagutu duten bi alabarekin, eta horiek parte aktiboa izan dira abereen eta landa-ingurunearen zaintzan. 2020ko pandemiak balio izan zien lehen sektorean dibertsifikazioko proiektu ekintzaile bat mamitzen hasteko. Ilusioz eta gogoz ekin zioten garbitzeari eta belar-sastrakak kentzeari dagoeneko birgaituta zegoen baserriaren ondoko lursailetan, haragitarako bi behi eta baserriko abere batzuk erosita. Proiektua profesionalizatuz sortu zen “Uetako Etxaldea”, Izaroren ametsa. Pixkanaka-pixkanaka, Galloway arrazako 18 buru dituen ustiategi bat gauzatu da. Behi-arraza eskoziarra da Galloway, tamaina txikikoa, adakerarik gabea eta ile lodi eta izurtukoa. Nahiz eta haragi ekologikoa ekoiztea izan zuten lehen desafioa, pixkanaka, lagun abeltzainen aholkularitzarekin eta ekintzailetzan jarraitzeko gogoari esker, ustiapena dibertsifikatuz joan dira, fruta-arbolak landatuz eta ezta ekoiztuz, abaraska propioak instalatuta. Gaur egun, azoketara joaten hasi dira, ustiategian pasioz eta arduraz lantzen eta biltzen dituzten hainbat produktu saltzera; gerezi-marmelada, ezta edo intxaurrak.

Salmenta mota hau ere desafio berria da Izarorentzat; izan ere, oraingo baikortasun berarekin egiten dio aurre etorkizunari, eta pentsatzen hasita dago nola joango den azoketara haragia zuzenean saltzera, dagoeneko buruan dituen beste proiektu batzuek gain, eta hori gaur egungo “Uetako Etxaldea” errealitatearekin lotzen saiatuko

da. Albaitari gazte honen helburu nagusia da ekonomikoki fidagarria den etorkizuneko plan bat garatu ahal izatea, familia jarduera horretatik bizi ahal izateko. Zazpi eta hamar urteko alabei sektorearekiko grina transmititu behar diela uste du, baita beraien abeltzaintzaren agintea hartu eta lanbide horretan jardun dezaketelako pentsamendua ere. Horretarako, bere egunerokoan, Izarok landa eremuko ohiko zereginak partekatzen ditu alabekin, landa-ingurunean haz daitezten, eta, nahi izanez gero, sektore horretan trebatu daitezten. Hainbestekoa da haren pasioa, non bere asmoa egonkortzeko bide horretan lagun duen hirugarren alabatzen hartzen duen jada bere proiektua.

Hala ere, Izarok aitortzen du prozesu hori guztia benetako errusiar mendia dela, eta, batzuetan, oztopo burokratikoak beteta dagoela. Oztopo horiek izapideak atzeratzen dituzte, eta izapideen geldotasunak urduritasuna eta egonezina eragiten die ekintzaileei: “Batzuetan, lan gehiago dago ordenagailuan landan baino, eta zama hori gehienetan emakumeengan erortzen da”. Ekintzaile gisa, aitortzen du, nahiz eta desberdintasun argirik ez duen ikusten, gizarteak orokorrean erraztasun gehiago eskaintzen dizkiola gizonari, alde administratibo guztia emakumearengan kargatuz. Hala ere, lehen sektorearen zale amorratu eta geldigaitz honek instituzioen aldetik ahal diren laguntza guztiak jasotzea gomendatzen du, eta informazioa eta aholkularitza bilatzea, adibidez, nekazari gazteentzako dirulaguntzei buruz.

Ezbairik gabe, Izarok bere lanbiderako duen pasioak eta anbizioak anbizio handiko emakume bihurtu dute, eta familiarren inplikazioaren eta pertseberantziaren bidez hobetzeko ilusioari eusten dio beti. Seguru lortuko duela.

# MAITANE BERISTAIN SALEGI



Maitane Beristain Salegi lasturtarra da eta bere auzoa maite du; Deba-Udalerriko Itziar tokiko entitate auzoa da Lastur eta Maitane bertan bizi eta bertan lanean dihardu bere auzo ingurua, ohitura eta tradizioak ezagutzera emateko xedez ekitea erabaki zuenetik. 44 urte ditu, eta gaur egun, Lasturko San Nikolas plazako aterpetxe, taberna eta landetxeko kudeaketarekin dihardu. Auzoko gunean bertan, taberna, landetxe, aterpetxe, errota, zaldiketa eskola, interpretazio zentroa, eliza eta frontoia daude. Herriari bizia ematen dion proiektu ilusionagarri honek bisitak, tailerrak eta ostatua eskaintzen dizkie natura-inguruneaz gozatu nahi dutenei.

## Bere herriarekiko pasioa eta lana

Maitane Beristainek, bere lanari buruz hitz egitean, ezin du ezkatatu bere auzoarekiko, Lasturrekiko, sentitzen duen lotura eta maitasuna. Itziarren kokatutako auzo txiki eta xarmagarri hau leku paregabe eta pribilegiatua da. Bertan, euskaraz, naturaz, kirolaz eta landa-bizitzaz goza daiteke, Geoparkearen bihotzean. Hori irakur daiteke Maitanek duela hamarkada bat baino gehiago hasi zuen proiektuaren webgunean, eta, hain zuzen ere, lasaitasunez inguratuta dagoen txoko txiki hau bisitatzera gonbidatzen gaitu; bertan galdu eta atzera bueltatu gaitzke, askotan irrikatzen dugun bizitza tradizional horretara.

Bere inguruarekin lotura handia du, eta txikitatik harro sentitu da bere bailaraz. Orain 35 urte inguru auzoan Izarraitz Bizirik elkarte sortu zuten; auzolanean Lasturko bertako egitura batzuk berreskuratu eta auzoaren beharrak osazeko helburuarekin. Gunean bertan esaterako eskola zaharra berrizatu, aterpetxea egin, frontoia... berreskuratu ziren finantziario desberdinak lortuaz eta auzolanean lanak eginaz. Gaztetxoagoa zen arren parte aktiboa izan izan zen. Maitanek benetako auzolana ezagutu zuen, baita bere lehen udalekuak gozatu ere bertan.

Aurrerago 2004. urtean, laborategiko teknikari gisa zuen prestakuntza eta lana birplanteatu zuen proiektu berri bati ekiteko; lasturko aterpetxearen kudeaketan burubelarri murgildu zen.

Debemen LGEk eta Izarraitz Bizirik eman zioten hasiera aterpetxeari eta ondoren 2015. urtean hartu zuen jabetza udalak. Garai hartan tabernako kudeaketan ere burubelarri sartu zen. Nahiz eta hasiera horiek ez ziren errazak izan, Maitanek proiektuaren ilusioa mantentzea lortu zuen; bide honetan Haziren eta Debemenen orientazioa eta laguntza ere izan zituen eta hauekin batera eta hauek gidatuz 2018an Ainhoa Gallardo ekintzailatza-lankidea batu zitzaion aterpetxearen kudeaketara Kooperatiba bat osatuz. Inguruarekin bat eginez mota guztietako jarduerak, tailerrak eta bisita gidatuak

eskaintzen dituzte Lastur eta bere gune historikoa ezagutzeko.

Bi bazkideek oso argi dute lekua ezagutaraztearen, baloratzearen eta errespetatzearen garrantzia, eta onartzen dute oso atsegina dela beren lanerako bisitari desberdinak izatea. Hala ere, Maitanek aitortzen du gaur egungo burokraziak itotzen dituela batzutan. Emakumea, ama, autonomia izatea eta baserrian bizitzea ederra da baina ez xamurra. Batzutan honelako lekuek ametsetan bizitzeko aukera ematen dutela pentsatu ohi da baina ez da horrela. Bertatik bizimodua ateratzeko norbere bizimodua moldatu eta etekin gutxiarekin bestelako baloreek duten garrantziari indarra eman behar izaten zaio. Berak maite duen Lastur mantendu eta bisitariari erakustea du helburu eta desira betetzen ari da.

Guzti honekin, Maitanek urte hauen balantze oso positiboa egin du. Lastur eta bere ingurune naturala ezagutzeko gero eta gehiago hurbiltzen direlako bertara. Izan ere, egiten duzuna eta bizi zaren lekua maite duzunean ezinbestean transmititzen da.

# ARABA

Itxaso|Eli|Nieves|Yolanda|Idoia|Maite|Oihana



# ITXASO COMPAÑON ARRIETA

Ixaso Compañon Arrieta, es, a sus 40 años la presidenta de ABRA, asociación de Bodegas de Rioja Alavesa y afiliada a UAGA, Unión de agroganaderos/as de Álava, dos cargos que compagina con la gestión de la bodega familiar El Mozo Wines y un nuevo proyecto en el que ha puesto toda su sabiduría y ganas para que pronto sea una realidad. A pesar de su corta edad, Ixaso residió en Donosti y Barcelona donde estudió cine y postproducción, pero su proyecto de futuro le trajo de vuelta a su municipio natal, Lanciego para formarse en vitivinicultura y enología emprendiendo un cambio de rumbo en su vida del que no se arrepiente. Koba es más que un establecimiento de venta de vinos y tienda,

es un escaparate para compartir espacios, hacer catas o recoger productos de cercanía. Situada junto a la bodega que heredó de su abuelo y su padre, Koba es el proyecto más ilusionante de Ixaso. Le permite desarrollar su trabajo en su pueblo, en un medio rural que actualmente no cambiaría por nada.

“La vida en el medio rural es impagable”

Ixaso Compañon disfruta día a día de ver cómo su proyecto Koba va gestándose con normalidad. Su familia lo sufre, pero ella se ilusiona con cada avance de la obra. Saca fotos, charla con el arquitecto, se informa sobre cómo van los trabajos, y siente con orgullo que está haciendo lo correcto en el lugar preciso. Ixaso es, podríamos decir, una mujer rural orgullosa de residir y trabajar en Lanciego, un municipio de algo más de 700 habitantes en el que ha decidido instalar su vida privada y laboral. Sin dudarlo ni un momento y afirmando tajantemente que ha merecido la pena, Ixaso cambió su vida “de película” por las bodegas y el vino. Sin embargo, no fue suficiente. Primeramente, tomó las riendas de El Mozo Wines para convertir la explotación en ecológica e invertir en una embotelladora consiguiendo una pequeña producción de 40.000 botellas exportando el 80% al exterior. Al promocionar la venta más directa se creó en el entorno una necesidad de visitar la bodega y hacer catas, más el espacio no era el adecuado por lo que Ixaso vislumbró la posibilidad de habilitar una pequeña cueva ubicada junto a la bodega familiar. Así nació Koba, un área multiusos con winebar, zona de exposición y venta de vinos de todas las bodegas de Lanciego y pueblos de alrededor, además de aceites de primera calidad, aprovechando el tirón del enoturismo y la falta de un establecimiento de estas características en el entorno.

Y es que la visión de Ixaso es mucho más amplia. Aunque el proyecto aun no está finalizado, Koba persigue ser también un espacio que puedan alquilar los mismos vecinos y vecinas de Lanciego dando ese carácter rural a la cultura del vino entre las personas de la comarca ponderando así los servicios de primera necesidad de los núcleos menos urbanos.

La presidenta de ABRA no ve dificultad en el emprendimiento, todo lo contrario. Si la idea se sostiene, sobran las ganas, y estamos

dispuestas a generar lazos de comunidad, tenemos ya un largo camino recorrido. Ella lo vio claro tras participar en un “Jueves de emprendimiento”, un curso en el que tuvo la oportunidad de compartir las iniciativas de otras personas emprendedoras y decidir por fin su futuro laboral.

Aunque encontró asesoramiento y ya ha tramitado la ayuda LEADER para obtener financiación para Koba, sí reconoce que falta información generalizada sobre las posibles ayudas que existen en el ámbito de turismo, principalmente. Sea como fuere, lo cierto es que Ixaso se encuentra en un proceso ilusionante esperando que Koba se consolide próximamente. No le preocupa el relevo generacional, ni si sus hijos seguirán con su proyecto. Lo importante es vivirlo de forma apasionada mientras ella esté al frente.

Koba será un punto de encuentro del vino y del día a día en Lanciego; un lugar para que visitantes y turistas conozcan lo mejor de la tierra de Rioja alavesa y un espacio en el que Ixaso brindará con un buen vino cuando empiece a funcionar.

# ELI GORROTXATEGI ORIA



Elisabeth Gorrotxategi y su pareja, Joxe Mari Jauregi dejaron su residencia en Beasain y se trasladaron a Ilarduia, Asparrena para sacar adelante una explotación ganadera de ovejas en La Leze, un caserío de los abuelos de él que consiguieron reflotar primero con una pequeña granja de cabras y ovejas y posteriormente, elaborando queso con denominación de origen Idiazabal y con el sello Artzai Gazta. El mimo y cuidado a la hora de elaborar sus diferentes clases de queso les ha hecho campeones en dos ocasiones del concurso de quesos de Ordizia, uno de los más prestigiosos en Euskadi. Actualmente, la explotación con cerca de 450 ovejas es un proyecto familiar que cuenta con la incondicional ayuda de sus dos hijos.

## Un proyecto familiar repleto de ilusión

